
POLITIKA EKONOMIKO BERRIA

Hauteskunde egitaraua 2012



urkullu.eu

eaaj
pnv

AURKIBIDEA

POLITIKA EKONOMIKO BERRI BATEN BEHARRA

1. Mundu osoan krisialdi ekonomiko eta finantzarioa.
2. Krisiaren markoa europar eraikuntza prozesuan.
3. Estatuko egoera ekonomiko delikatuak.
4. Euskadin norabide aldaketaren beharra.

“EAJ EREDUA” EUSKADIKO GARAPEN EKONOMIKORAKO BERME GISA

1. Autogobernua, garapenerako tresna gisa.
2. Ekimen ekonomikoa enplegura bideratuta.
3. Lehiakortasuna, jasagarritasuna eta gizarte babesa.
4. Erakundeen arteko kontzertua, gizartearen akordioa, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak.
5. Kudeatzeko gaitasun eta eskarmentu egiaztatutak.

HAZTEKO ETA KRISIALDITIK IRTETEKO LEHENTASUNAK

1. Gure politika industrialerako eredu propioa berreskuratzea.
2. Aukera, berrikuntza eta ekintzaitza sektore berriak.
3. Nazioartekotzearen eta Euskadi markaren aldeko apustua.
4. Enpresei eta enplegu sortzaileei finantzaketa eskaintzea.
5. Pertsona prestatuak sozialki arduratsuak diren enpresetan.
6. Gizarte-kontzertua eta lan harremanetarako sistema propioa.
7. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Sistema, enpresa mundura bideratuta.
8. Azpiegitura fisiko eta teknologiko aurreratuen sarea.
9. Enplegurako, lehiakortasunerako eta gizarte ereduaren jasagarritasun eta iraunkortasunerako fiskalitatea.
10. Sektore publiko eraginkorra eta biziberritze ekonomikoa zuzentzeko gai.

ENPLEGU ETA BIZIBERRITZE EKONOMIKORAKO ABERRI AKORDIOA

POLITIKA EKONOMIKO BERRI BATEN BEHARRA

1. MUNDU OSOAN KRISIALDI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Gobernu ororen helbururik garrantzitsuena da bere hiritarrentzat ahalik eta ongizate mailarik gorenena lortzea, batez ere bizi dugun krisi testuinguru batean. Albiste ezkorrak bata bestearen atzetik datoz, eta ezinbestekoa da hazkunde dinamika eta talde-itzaropen giroa sortzea.

Derrigor hau, EAJ-PNVk bere gain hartu duen konpromisoa da, eta bestelako interesen gaintik jarri duen honek ideia eta politika argiak eta ondo zehaztuak behar ditu; ezaugarri hauek ondo erakutsi ditu EAJ-PNVk, gainerakoek oraindik egiaztatzeke duten bitartean.

Gure arduraz jabetzen gara, eta ulertu egiten dugu honakoa une egokia dela hiritarrei **bere politika ekonomiko berri eta bereziaren ardatzak azaltzeko**. Politika ekonomiko honen bidez, **krisiaren erronkei aurre egiteko eta hazkunde ekonomiko eta enpleguaren bidea berreskuratzeko**.

Euskadik -emakume eta gizonen osatzen duten aktibo nagusiaz gain- autogobernu borondate eta tresnak ditu helburu hori erdiesteko. Tresna hauek, besteak beste dira Kontzertu Ekonomikoa, barne finantzaketa eredia, eta zergak arautzeko gaitasuna. Tresna hauek lagundu zuten 80. hamarkadako beherakada industrialak gainditzen, eta berriz ere lagunduko dute orain bizi dugun egoeran, Euskal Gizartearen beharrez eta asmoen neurrirako eraldaketa ekonomikorako eredia eratzen lagunduz.

Planteatzen dugun helburua da **gure ekonomiaren lehiakortasuna** mantentzea eta hobetzea. Horrek lagunduko digu hain berezi egiten gaituen eguneroko arloak mantentzen eta hobetzen: gure hezkuntza eredia, Osakidetzaren zerbitzuak, mendekotasun egoeran dauden nagusiei ematen zaien arreta, egoera latzean dauden familiei ematen zaien laguntasuna... eta abar luze bat, gizarte-sarea izenekoa osatuz. Euskal eredia ekonomia lehiakorraren sortzailea da, eta justizia eta gizarte ekitatean oinarritutako ongizatea eragiten du. Hori da herri osoarentzako garapen eta kohesio bermea.

Euskal eredia ez da koiunturazko produktu bat, denbora egoera edo epeen gainetik dagoen helburua da eta herri gisa ditugun helburu estrategikoetan barneratzen da. Denbora ezberdinetan mantentzen diren baloreetan oinarritutako eredia da; balore hauek une bakoitzean hartu beharko diren erabaki operatiboak sortuko dituztelarik.

Berriz ere, gure historiaren beste une batzuetan gertatu izan den moduan, oraingoa da **etorkizuneko euskal gizartea eraikitzeko unea**. Bidea luzea izango da eta ez gara zailtasunetatik libre egongo, baina denon ahaleginarekin, eta bortxakeriak ekarri duen etsitasunetik urrun, lortu egingo dugu. Gure erronka da, eta erronka hori gainditzeko ahaleginari ekingo diogu.

Jabetzen gara merkatuaren garrantziaz, baina politikaren arrazoiaren indarrean sinesten dugu, euskal hiritar guztien borondatearen esanahiaren indarrean. Pertsonak jartzen ditugu gauza guztien gainetik, hau da, gure emakume eta gizonak.

Horri lotuta, jakin badakigu finantza marjinarik gabe, berrabiatze ekonomikoa zaila dela; baina gu ez gara geldi geratuko, merkatuak noiz lasaitu edo finantza krisia noiz amaituko zain. Gu ez gara sekula geldirik geratu, eta orain ere ez gara geratuko. Gure lanak egiten jarraituko dugu, lan horiekin norabide egokian jartzen garelako itxaropenez eta fedez.

Finantza krisiaren kontra egingo dugu, gure enpresek pairatzen duten mailegu defizita arinduz, finantza babeserako tresnak sortuz eta krisialdi ekonomikoari aurre egiteko neurriak proposatuz.

Ezinbestekoa da hausnarketari eta, bere kasuan, jarduera ildoak ezarri baino lehenago, egoera ekonomiko eta sozialak osatzen duten markoa, edo eszenatokiaren mugei begiratzea. Errealitatea ezagututa baino ez dugu esparru eta eragileengan zuzen eragiteko aukerarik izango.

Marko hau zehaztea ez da erraza, testuingurua bera aldakorra delako, eta etengabe zehaztea behar duelako. Hain egoera larrian, krisi honen zioak eta ondorioak gutxiestea bezain larria da, duena baino garrantzi handiagoa ematea.

Krisi hau ez da bakarrik gurea, Estatuarena edo Europarena; mundu mailako krisi baten aurrean gaude, **etengabe aldatzen ari den testuinguruan**. **Honek harreman eredu berrira ere garamatza**, eta gure enpresek elkarrekin bizitzen ikasi beharko dute, garatzeko aukera izan nahi badute.

Mundu mailako ekonomia 2008 urtean piztu zen krisialdi ekonomikoa gainditzen hasia dela ematen duen arren, berrabiatze hau oso ahul eta ezegonkor dago oraindik, eta oso era desorekatuan ematen ari da. Nazioarteko Moneta Funtsak 2012 urteko mundu mailako hazkunde ekonomikorako aurreikuspenak % 3,5ean kokatzen ditu eta % 3,9an 2013 urterako, baina iragarri egin du Europako zorraren krisiak eta petrolioan eman daitekeen igoerak berreskuratze ahul hau deuseztatzeko arriskua ekar dezaketela. Gainera, hazkunde aurreikuspen hau, neurri handian dator herrialde gainerakorretatik. Ekonomia aurreratu askotan, hazkundera ahula da oraindik eta defizit publikoa beharrezko beharraren aurrean hartzen ari diren neurriek mehatxatzen dute.

Eta amaitzeko, oraingo egoera larria den arren ez dugu ahaztu behar jaiotze tasaren beherakadak eta bizitza itxaropenaren igoerak eragindako trantsizio demografikoa izango dela XXI. Mende honetako erronkarik handiena. Azterketa batzuek 7 aldiz biderkatzen dituzte oraingo krisi ekonomiko eta finantzarioaren eraginak. Zalantzarik gabe, erronka honi aurre egin beharko diogu, bereziki Euskadi moduko herrialdeetan, non joera demografikoek arazo hori bereziki handituko duten.

2. KRISIAREN MARKOA EUROPAR ERAIKUNTZA PROZESUAN

Hazkunderik gabeko eszenatokiak Europa osoa hartu du, eta bereziki Euroguneko herriak. Testuinguru hau funtsezko datua da, ez bakarrik krisiaren benetako maila ezagutzeko, baizik eta baita euskal ekonomian izan duen eragina ezagutzeko, kanpoko merkatuetara esportatzea eragozten duelako; eta azkenean, faktore ezkorra ere bada krisitik irteteko estrategia kolokan jartzen duena.

Ezin dugu begi bistatik kendu, Europak krisiari aurre egiteko duen ezintasunaren oinarrian dagoela euro gunearen diseinu eskasa bera. Erantzuna emateko gaitasuna hobetzeko, estatu ezberdinek lankidetzarako duten jarrera eskasa gainditu beharraz gain, beharrezkoa izango da batasunean erakunde sendo eta sinesgarriak eratzea.

Gure derrigorra da adi mantentzea eta Hazkunderako Egutegia deritzonaren inguruan Europan hasi den eztabaidan parte hartzea, batasunaren erakundeei berrabiatze ekonomikoaren aldeko egitekoa eskatuz, finantza eskumenen birzehaztapena eta egitasmoen sendotzea eskatuz. Moneta Batasunaren ahultasuna gainditzeak, beste gauza batzuekin batera eskatzen du Europar Banku Zentralak azken mailegu emailearen egitekoa bereganatzea, eta inflazioa kontrolatzeko lanera mugatzeari uztea.

Garrantzizkoa da **Europar Batasunaren barruan hazteko** strategiaren alde mantentzen dugun jarrera azpimarratzea, solidariotasunean eta arduran oinarrituta. Ulertu egiten dugu estura eta doikuntza fiskalerako politikak beharrezko baldintza diren arren, ez direla nahiko gertatzen, berez, krisialditik irteteko. Ulertu egiten dugu ezinbestekoa dela **Europa osorako gobernurako markoa sortzea**, tresna zehatzak jarrita, eta hauen artean, batasunaren aurrekontua handituta, Europa mailako politika ekonomikoaren eta sektore berritzaileetan oinarritutako **estrategia industrialaren zerbitzura** egongo delarik.

Zentzu berean, azpimarratu beharra dugu Europar Batasunak enpleguaren inguruan erabaki duen neurri multzoa dela une hauetarako jarduera ardatz nagusienetakoa. Hala aipatu beharra dugu Europar Batzordeak egin duen azken komunikazioa “Enplegua sortzeko indarberritzerako bidean”, Europa 2020 Estrategiari lotua. Hobetu ahal den neurri berean, aldatzeko norabidea markatzen du orain arte mantendu diren politikekin alderatuta.

Estrategia hau irailean eztabaidatuko da, eta hainbat neurri bateratzen ditu, besteak beste lanari buruzko fiskalitatea murriztea, enpresak sortzeko babes handiagoa, barne malgutasuna, enpleguen ziurgabetasunari aurre egitea, enplegu arlo sortzaileagotan jardutea: ekonomia ekologikoa, osasun eta gizarte zerbitzuak eta IKTak... eta europar gizarte zerbitzuen erreforma; eta ondorioz, Lanbideren erreforma ere, Europa 2020 Estrategiaren helburuetara egokitzeko. Zalantzarik gabe, orain arte mantendu izan denaren berrikuspena eta Euskadin enplegua sustatzeko aukera.

Krisiak eta enpleguaren galerak iraun duen hiru urte luzeko epearen ostean, hiritarrek indar politikoei eskatzen- exijitzen -dizkietenak dira jardunbide zintzorako ildo eta proposamenak, sinesgarriak eta handikeriarik gabeak-baina ez sinpleak- beren talde nortasun ikurrekin bat egingo dutenak. Horrela baino ez dugu lortuko gobernagarritasuna , krisia eta bere ondorioz kaltegarrienak gainditzea ahalbidetuko duen erdikoitasunean jardutea.

Oraingo krisiak proportzio historikoko erronkaren aurrean kokatu gaitu. Europa egitasmoa anai arteko mendeetako gudekin amaitzeko sortu zen; eta orain, integrazio ekonomiko eta politikorako zerumuga politikoa apurtzeko arriskuan aurkitzen da. Gainera, bere izaera soziala eta ongizate bermatzailea galtzeko arriskuan ere badago.

Dena dela, Europak krisiari aurre egiteko hartuko duen bidea ere bada batasun politiko, aurrerapen ekonomiko eta talde ongizateko Europa, eta aldi berean Batasuna osatzen duten zatien berezitasunak errespetatuko duen erdua finkatzeko aukera. Gure kasuan, esparru horretan sartzen dira zerga eta tributu arloan ditugun eskumenak.

3. ESTATUKO EGOERA EKONOMIKO DELIKATUA

Espainiar ekonomiaren egoera, zeinarekin euskal ekonomiak mendekotasun maila altua mantentzen duen, benetan latza da.

Estatuko eszenatoki teorikoak guztiz aldakorrak dira, eta denak ezkorrak. Estatuko aurrekontu aurreproiektuan islatutako aurreikuspen ekonomikoei behatuta, hobekuntza ekonomikorako atean egongo ginateke; FMI erakundeak esaten duenari begiratzen badiogu, egoera ekonomikoa larriagotuko den aldian gaude, eta egongo gara.

Nazioarteko Moneta Fondoak (FMI) krisiak izango duen eraginaren inguruan egin duen azterketaren arabera, krisi global hau ia eraginik gabe igaro da herri batzuetan, beste batzuk larriki zauritu dituen bitartean. Azken multzo honetan dago Espainia, eta FMI erakundeak ekonomiaren inguruan aurreratu du 2017 urtera arte, espainiar BPG, oro har, ez dela berdinduko 2007 urtean erregistratu zenarekin. Beste hitzetan esanda, krisi globalak “faktura” pasatuko dio Espainiari, hazkunde ekonomikorik gabeko 10 urte suposatuko baitizkio.

Apirilaren 27an Espainiar Gobernuak 2012-2015 epealdirako onartu zuen Egonkortasun Egitasmoa, Europar Batzordeari helarazi zitzaionak era ezartzen du 2012 urtean BPGa % 1,7an erori dela, % 24,3ko langabezia. 2013 urtean BPGaren igoera arina emango da (%0,2ko igoera) eta hurrengo urteotan ere igoko da (% 1,4 eta %1,8) baina langabezi tasan ia eraginik izan gabe, zenbaki hauek mantendu egingo direlako.

Dena dela, adituen aurreikuspenak Espainiar Gobernuarenak baino okerragoak dira. FMI erakundeak BPGaren jaitsiera egongo dela esan du, hau da, % 1,5ekoa 2012 urtean eta %0,6koa 2013an; hau dena, uztailaren 13an onartu ziren azken murrizketen eraginaren gaineko azterketa kontuan hartu gabe. Funcasek are aurreikuspen okerragoak eskaintzen ditu, hau da BPGaren % 1,7ko jaitsiera 2012 urtean, eta % 1,5ekoa 2013 urtean. Horrez gain, langabezi tasa % 26,3raino igoko dela aurreikusi da.

Gainera, aztertzaile gehienek zalantzan jartzen dituzte administrazio publikoek Bruselak esandako epeetan defizita murrizteko baldintza betetzea. Datu ona da, hala ere, inflazioak behera egingo duela.

Egiturezko elementuei dagokienez, krisi ekonomikoa izan duen eragina kontuan hartuta, ezin dugu aipatu gabe utzi espainiar ekonomiak kanpoko balantza positiboa lortzeko ezgaitasuna izan duela, eta honek eragotzi dio inbertsioari eusteko behar den barruko aurrezkiak izatea.

Betiko ezgaitasun honek ekarri ditu orain arte inoiz eman ez diren zorpetzeak. Egoera honetan zor publikoa handia den arren (BPGaren % 72), askoz handiagoa da zor pribatua (BPGaren % 200tik gorakoa); eta honen zati handi bat dator espainiar finantza sistematik; denak batera hartuta BPGaren % 300era hurbiltzen dira, espainiar krisiaren faktorerik handienetakoa edo handiena osatuz.

Zorpetze honek, oraingoa moduko gelditze aldietan, ordaintzeko epea amaitzear duen zorra itzultzea eragozten du, eta era berean zailagotzen du zor berria interes tipo egokietan eskuratzea. Dinamika hori zuzentzen ez den bitartean, **espainiar krisia ez da behar bezala bideratuko**, eta luzeagoa izatea ekarriko du, Europar Batasunaren ekonomia nagusiekin alderatuta.

4. EUSKADIN NORABIDE ALDAKETA BATEN BEHARRA

Eusko Jaurlaritzak EAEko egoera aztertuta egin dituen eszenatoki ekonomiko teorikoek egoera delikatua marrazten dute, baina Estatukoa baino apurtxo bat hobeagoa; atzeraldia % 1,3koa izango da 2012 urtean, eta horrela mantenduko da 2013ko lehen sei hilekoan. Eszenatokitik baikorrenean, bizkortze txiki baten lehen zantzuak ez lirateke 2013ko hirugarren hiruhilekora arte iritsiko.

Analista guztiek partekatzen dutena da EAEk egoera baikor bereziak aurkezten dituela estatuarekin alderatuta, eta hau datorkio industria esparruan duen dimentsioagatik, esportazioen bultzadagatik eta enpresek nazioartean duten kokapen mailagatik. Aldi berean, giza baliabideen prestakuntzatik ere datorkio. Baina, ezin dugu ahaztu, **langabezia** 2012ko ekainean **biztanleria aktiboaren % 14,6ra** iritsi dela, hau da, 158.000 euskal hiritar dira langabezi egoeran daudenak.

Alderaketan hobeto dagoen egoera hau ematen da, nagusiki euskal sektore industrialak BPGari egiten dion ekarpena 2010 urtean %24,5era iritsi delako (Alemaniako portzentajearen antzekoa) eta estatukoa dago 10 puntu beherago. Gainera, esportazioetan aurkitu izan da produkzio industrialaren babesa, barruko eskaria eta kontsumoa jaitsi denean. 2011 urtean euskal esportazioek errekorra markatu dute eta balantze komertziala ona izan da, neurri batean eskaria beheratu delako. Eusko Jaurlaritzak 80. eta 90. hamarkadetan “korrontearen kontra” gauzatu zuen politika industrial eta euskal enpresa nazioartean kokatzeko ahaleginak izan dira prozesu honen giltzarriak.

Edozein kasutan, hurrengo hilabeteotan, 2008ko bigarren sei hilekoan piztu zen krisiaren bigarren aldi larrian egongo gara murgildurik.

Gaur egun, bigarren atzeraldiaren erdigunean aurkitzen gara, 2008 urtean pairatu zena baino konplexuagoa. Une honetan, hiritarrak ahulago sentitzen dira inguruan dagoen ziurgabetasunagatik, orain arte martxan jarritako politiken eraginkortasunik ezagatik, krisiaren luzapenagatik, langabeziaren igoera beldurgarriagatik eta etorkizunerako aurreikuspenik ezagatik. Aldi honetan guztian, ageri-ageriko daude hiritarren konfiantzarik eza eta ekonomia eta gizarte alorreko eragileen beldurra. Ziurtasuna eta konfiantza urriak dira gaur egun. Horrez gain, bortxakeriak mina eragin izan du urteotan, gure balore sistema kaltetu du eta baliabide ekonomiko eta giza baliabide ugari kontsumitu ditu. Gainera, Euskadirentzat ere suposatu du nazioartean irudi ona galtzea.

Errealitate horren aurrean, itxaropentsu egoteko ere badaude. Aliatu bikaina dugu gure alde, krisialdiaren osteko egoerak ekarriko dizkigun aukerak baliatzeko: Bakearen itxaropena. Bakea ez dugu sekula hain eskuragarri izan. Iraganeko ibilbide ekonomikoan zailtasun ugari zeuden eta denak gainditu genituen, gainean bortxakeriaren zama astuna generaman arren. Betidanik esan dugu, Euskadik “motxila” jasanezin hura gainetik kentzeko aukera izango balu, lehiakortasunerako lasterketaren munduko lehen tokietan jarriko ginela. Heldu da azkenean hainbatetan amestutako unea. Ez dugu bortxakeriaren zamarik. Bortxakeria gure bizitzatik desagertu da. Ekin diezaiozun beraz, krisiari zama eta motxilarik gabe gainditzeari.

Bakeak, edo bortxakeriarik ezak, gutxienez, orain arte hazkunde ekonomikoari laguntzeko duen ahalmena espero zen indarrez ekarri ez duen arren; eta seguruenik, krisiaren beraren gogortasunak bakea bitzta ekonomikoan sentitzea eragozten duelarik, EAJ-PNVren ustetan, **agerikoa da Bakea Euskadiren gaitasun ekonomikoa indartzen duen faktorea dela.** Garapenaren zerbitzura jartzea berrikuntzarako faktore bikaina da, eta eraginak izango ditu gure herrian bertan eta kanpo aldean dugun irudian.

Amaitzeko, eta espainiar ekonomiarekin alderatuta, azpimarratu beharra dago gure kanpo balantzak gozatzen duen osasun ona, gure enpresetan inbertsio handiagoa ahalbidetu duelarik. Horri lotzen zaio enpresa hauek euskal enpresarien eskuetan daudela. Eta, hala jarraitzea nahiko genuke.

Honen guztiaren gakoa da berrabiatze ekonomikorako trenean aurrealdeko tokiak hartzeko gai izatea. Honek eskatzen du gure defizit nagusiak borrokatu eta gainditu ahal izatea. Azpimarragarriak dira, besteak beste, sektore batzuetako produktibotasun eskasari lotutako arazoak; gure enpresen tamaina txikia; lan harremanetatik eratorritako arazoak; esportazioa sektore eta herri batzuetan kontzentratzea; lan merkatuan era finkoan sartu ahal izateko beharko litzatekeen kualifikaziorik gabeko langabe kopuru altua; enpresek maileguak eskuratzeko dituzten zailtasunak edo defizit eta zorraren kontrol zorrotza . Hori guztia lehenetsiko du EAJ-PNVk bere lanean.

“EAJ EREDUA” EUSKADIKO GARAPEN EKONOMIKORAKO BERME GISA

Egoera larri honen aurrean, dagozkigun arduretaz jabetzen gara, eta Euskal Gizartearen zerbitzura jartzen dugu **politika ekonomikoa egiteko eredu berria**. Dauden zailtasunez jabetzen gara, baina ezinbestekoa da erantzuteko orduan errealismoz, estrategiaz, batasunez eta ilusioz egitea. Gure lehentasuna da, atazak berarekin dakartzan zailtasunekin ere, **Euskadi hazkunde ekonomikorako bidean jartzea**; gizarte ekitatearekin eta gure garapen ereduaren jasangarritasunarekin bateragarria izango den hazkundea.

Eredu bat proposatzen dugu, “EAJ-PNV eredu” . Eguneratu, eta bizi dugun errealitatera egokitu dugu. **Ondo kontrastatuta** geratu da; gure ekonomiaren eta gure gizartearen izaera eta berezitasunari, eta EAJ-PNVren pertsonak kudeatzeko erakutsi duten gaitasunari erantzuten dioten printzipioetan oinarritzen da.

Hauxe da, laburrean, euskal gizarteari proposatzen diogun eredu:

Printzipioak

1. **Autogobernua, garapenerako tresna gisa.**
2. **Ekimen ekonomikoa enplegura bideratua.**
3. **Lehiakortasuna, jasangarritasuna eta gisarte babesa.**
4. **Erakundeen arteko kontzertua, gizartearen akordioa, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzeta.**

Capacidad y experiencia de gestión demostrada.

1. AUTOGOBERNUA, GARAPENERAKO TRESNA GISA

Euskal errealitate ekonomikoa guztiz bestelakoa da. Gure ehun ekonomikoak eta Euskadiko sare instituzionalak osagai eta ezaugarri propioak ditu, nortasun propioa ematen diotenak.

Euskal Autonomi Erkidegoak eta Nafarroako Foru Erkidegoak berezitasun eta autogobernu sistema berezitua dute. Horregatik azaltzen da Euskadik gaur egun bere esparru ekonomikoan duen egoera ezberdina .

Euskadiren etorkizunera begira, ezinbestekoa da gure Herriaren inguruabar berezietara egokitutako politika propioen garapenean sakontzea, Euskal Sistema Ekonomiko benetakoa eratuz. Horregatik, ezinbestekoa da Estatuak hartuko dituen neurriak Euskadin aztertzea, inguru eta esparru ekonomiko ondo berezituak direlako. Adibide gisa, osasun eta hezkuntza esparruak aipatu behar dira, Estatuko Gobernuak duela gutxi bultzatu dituen murrizketa zorrotzen mende . Gainera, aurre egin behar zaio Estatuaren aldetik “oinarrizko” legegintzan ematen den gehiegikeriari .

Gure helburua da orain ditugun gaitasun guztiak garatzea, eta Euskadiren autogobernuan sakontzea. Egiaztatuta geratu da **Euskadiren kudeaketa propioak euskal politika publikoen eraginkortasuna handitu duela eta hori dela gure Herriaren hazkunde ekonomiko eta giza garapenerako bermerik onena.**

Zentzu honetan, Euskadik honakoak egin beharko lituzke:

- Enplegu Politika Eraginkorrak benetan garatu, euskal lan merkatuaren errealitatera egokituz eta horrekin batera enplegurako politika pasiboak bereganatuz.
- Euskadiko eskumenen garapena, bete gabe dauden eskumenekin osatzea, besteak beste tren azpiegiturak ,aireportuen kudeaketa eta finantza sistemaren gainbegiratzea.
- Gure proposamen propioak sakonki aztertzea eta zehaztea, arlo ekonomikoan ditugun gaitasun propioetan eragin esanguratsua duten Estatuko eta Europar Batasuneko politiken aurrean.
- Euskadiren instituzionalizaziorako akordio politiko berria planteatzea, adostasunean eta atxikimendu sozialean eta hiritarren eta gizarte eragileen parte hartzean oinarrituta .

Dena dela, ezin ditugu autogobernua eta autarkia kontzeptuak nahastu. Euskal autogobernua estuki lotuta dago europar eraikuntzarekin, europar agintariek beren aurrean baitute europar egitasmoarentzat hain urte dramatikoetarako inflexio puntua aurkitzeko erronka, eta Batasunaren gobernu ekonomikoan aurrera egin ahal izateko; eta horretarako ezinbestekoa da Europar Banku Zentralari eta Egonkortasun Finantzariorako Europar Funtsari egiazko gaitasuna ematea, merkatuek euroari eta europar ekonomiari begira eragiten duten presioa indargabetzeko. Hau dena egin behar da zorroztasun eta finkatze fiskala orekatzeko helburuarekin, ekonomia produktiboa, eta beraz, hazkundera bultzatuz.

Euskadik europar egitasmoaren alde egin duen apustu historikoa Batasunaren gobernu ekonomikoaren alde egiten dugun apustuan gauzatzen da, Kontinente osorako hazkunde agenda bultzatuz. Hauxe da Euskadik izan behar duen helburu estrategikoa, eta horretara prestatu beharra dauka. Horrek azaltzen du gure Herriaren politika ekonomikoaren norabidea aldatzeko beharra.

Aldi berean, europar dinamika ekonomikoan integrazteko jarduna garatzen jarraitu beharra dugu. Europar erakundeetan parte hartzeaz gain, europar sare eta egitasmoetan dugun parte hartzea indartu beharra dugu lankidetzaren bidez, eta europar erregio eta hiriekin parte hartze estrukturalak irekitzearen bidez. Baina, era berean, enpresek ere parte hartze handiagoa izan behar dute beste enpresekin eta I+G+B eragileekin lankidetzan aritzeko sare eta egitasmoetan.

2. EKIMEN EKONOMIKOA ENPLEGURA BIDERATUTA

Lehena, funtsezkoena, gure lehentasuna, enplegua da. Enplegu duina, produktiboa, kalitatezkoa, egonkorra eta jasangarria. Eta, era berean, enplegu horren inguruan ere eman behar da balio erantsia sortzeko markoa, ongizate esparru barnerakor eta solidarioa mantendu ahal izateko. Bide honetan, lanpostuak finkatzea, pertsona gazteen lan munduratzea eta jarduera ekonomikoa dinamizatuko duten, eta enplegu berriak sortuko dituzten aktibitate eta egitasmoen aldeko apustu egitea da gure kezka eta ardurarik nagusia.

Enplegua eskubidetik harago doa, sarrera ekonomikoa suposatzen duen, eta oinarritzko beharrianak asetzea ahalbidetzen duen eskubidea baino gehiago da. Gure eredian **enplegua norberaren garapenerako tresna ere bada**, eta Euskal Enplegu Sistemak honako hauei begiratu beharko die:

- Pertsonen gaitasun eta motibazio profesionalen garapena.
- Berdintasuna enplegura sartzeko orduan, enplegua eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten taldeei laguntasuna emanez.
- Etengabeko ikaskuntza sustatzea.
- Famili bizitza eta lana uztartzeko aukera bermatzea.

Politika ekonomikoaren erronka nagusia da enpleguaren sorrera ahalbidetzea eta enplegua sortzen laguntzea. Gure okupazio tasa (% 64,5ekoa 2011n) Europar Batasuneko batz bestekoa baino apurtxo bat altuagoa da, baina behetik dago gure erreferente izan beharko luketen herriekin alderatuta: Alemania, Danimarka, Holanda eta Suedia. Horiek denak daude % 70tik gora. Erronka hau bereziki garrantzitsua da gazteen artean, beren langabezi tasa Euskadin batz bestekoaren bikoitza delako. Gauza bera gertatzen da emakumeen lanarekin, beren tasak ez baitu % 60tik gora egiten.

Enplegua sortzeaz gain, beste erronka handia izango da **enpleguaren kalitatea** hobetzea. Lan egiten duten 5 euskal hiritarretatik batek aldi baterako kontratuarekin egiten du, eta portzentaje hori askoz altuagoa da gazteen artean-, horrek berarekin dakartza ziurgabetasuna eta beren bizitza proiektuak planifikatzeko muga handiak.

Enpleguaren sorkuntza eta hobekuntza hau, **Euskal Lan Harremanen Sistemaren** markoan eman beharko da, enpresen eta langileen interesen arteko oreka bermatuz, lan egiten dutenei eta lanik gabe daudenei malgutasuna, ziurtasuna eta babesa emanez.

3. LEHIAKORTASUNA, JASANGARRITASUNA ETA GIZARTE BABESA

Enpleguan behar den hazkundera lortzeko, lehiakortasuna da Euskadirentzako erronkarik handiena. **Gure enpresen lehiakortasuna, euskal ekonomia osoaren lehiakortasuna**, honen barnean gure eragile instituzional, sozial eta ekonomikoak sartuz. Ibarretxe Lehendakariaren Gobernuak Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomiko eta sozialarekin abian jarri zen prozesua, hiru urteko geldialdiaren ostean berreskuratu beharra dugu, inoiz baino indar biziagoz, orain dugun egoeraren larritasuna kontuan hartuta.

Gure lehiakortasuna, gure ekonomiaren produktibotasuna hobetzeko lan eraginkorraren aldeko apustua egiten dugu, baina ulertu egiten du jarduera modu honek Euskal Gizartearentzat oinarritzkoak diren jasangarritasuna eta babes soziala diren printzipioekin bateragarri izan behar duela.

Jasangarritasunari dagokionez, **gure inguruaren babesa**, derrigor etikoa izateaz gain, beharrezkoa ere badugu, Euskadirentzat nahi dugun garapen ekonomikoa lor dezagun. Bere hiritarrentzat oparotasuna eta ongizatea lortu nahiko duen nazio orok, erakargarritasunen bat ere eskaini behar du, ez bakarrik turista gisa bisitatzen dutenentzat, baizik eta baita inbertitzaile izan daitezkeenentzat eta ikertzeko edo sorkuntza talentua duten pertsonentzat; ondorioz, gure herriak eta hiriak, gure naturgunea zaintzea baldintza ezinbestekoa da balore handiagoa eta kalitate handiagoko enpleguak emango dizkiguten jarduera ekonomikoak izateko.

Babes sozialari dagokionez, argi izan behar dugu krisialdi honek ez diela modu berean eragiten, eta era berean ez die berdin eragiten talde ekonomiko edo sozial ezberdinei. Beraz, talde batzuk daude arreta eta zerbitzu handiagoak eta bazterketan ez erortzeko berariazko laguntasunak behar dituztenak. Honek suposatzen du krisiaren kontrako borrokan ondo zaindu beharko direla gure ongizate eredu osatzen duten sarea eta balore handiak, balore hauek gure jardun sozio-ekonomikoaren erreferente nagusi izan behar dute, eta hausnarketa eta azterketa egin beharko dugu, etorkizunean mantendu ahal izateko.

4. ERAKUNDEEN ARTEKO KONTZERTUA, GIZARTEAREN AKORDIOA, ESPARRU PUBLIKO ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZA

Euskadik aniztasun instituzionala du, eta ahalbidetu egiten du jardun publikoa herrialde esparru bakoitzaren inguruabar eta ezaugarrietara hobeto egokitzea. Gure autogobernuaren aktibo honek, krisialditik irtengo badu, **Eusko Jaurlaritza indartsua beharko du borondateak eta ahaleginak batu ahalko dituena**, politika ekonomikoak, herrialde, gizarte eta produkzio garapen politikak, Europar Batasunaren Hazkunde Agendak ezarriko dituen helburu eta estrategikoekin uztartzeko gaitasuna izango duena. Betidanik garrantzitsua izan delarik, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak ezinbesteko errealitatea da orain, eta gure berrabiatze ekonomikoaren motore bilakatu beharra du.

Dena dela, amaituak dira esparru publikoak berez ekonomiatik eta inbertsioetik tiratzeko gaitasuna zueneko garaiak. Esku hartzeko gaitasuna ordezkari ezina den arren, hori ez da nahikoa. Lankidetzaren beharra dugu orain.

Horrela ba, gure eremuan ezinbestekoa da **esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak**. Ez bakarrik jardun ekonomiko- produktiboaren garapenerako, baizik eta behar besteko azpiegiturak sortzeko, jarduera ekonomikoari eusteko eta hiritarren beharrezkoak asetzeko. Europar Batasuneko herrialde batzuek eskarmentu handia dute bide honetan. Guk irmotasunez eta zentzuz jorratu behar dugun bidea da.

Ez dugu ahaztu behar hain beharrezko dugun **gizartearen kontzertu** edo parte hartzea. Euskadik gizarte erakundeek osatutako ehun aberatsa du, eta erakunde hauetako askok ezinbesteko egitekoa dute jarduera ekonomikoan. Bereziki garrantzitsua da sindikatu eta enpresa erakundeek egiten duten lana; ahalegina egin behar dute “norabide berean egiteko”, hau da, berrabiatze ekonomikorako eta enplegu sorkuntzarako bidea.

5. KUDEATZEKO GAITASUN ETA ESKARMENTU EGIAZTATUAK

Euskal Gizartearen zatirik nagusienak partekatzen dituen lau printzipio hauek egiaztatzen dute EAJ-PNV dela **euskal hiritarrek krisiaren aurrean sentitzen dutena ondoen ulertzen duen alderdia**, eta hauek printzipioek beste euskal alderdi politikoengandik bereizten gaituzte; baina badago era berean bereizten gaituen beste elementu bat, EAJ-PNV baita printzipio hauek ekimen errealetan gauzatzeko orduan, **lan egiteko gaitasuna eta guztiz egiaztatuta geratu diren emaitzak aurkeztu ahal dituen**a.

Euskal hiritargoa konpromiso eta zintzotasun politiko maila altuetara ohitu da, eta aurkeztuko zaion eskaintza politiko oro sakontasunez aztertzen du. Zintzotasun politikoa egiaztatzeko erarik onena da une bakoitzean esaten dena eta ardura instituzionalak izan direnean egin dena alderatzea; eta, zentzu horretan, EAJ-PNVren balantzeak ez du inongo alderatze alderdikoirik onartzen.

Euskal gizarteak jakin badaki talde ekonomikoak ditugula, egoera honi aurre egiteko borondate, gaitasun, prestakuntza eta eskarmentuarekin. Euskadik aurrean izango duten erronkek buruzagitza behar dute, eta administrazio publikoetan kudeatzeko eta gobernatzeko esperientzia duten lan taldeak. Funtsezkoa da EAJ-PNVk kudeaketa instituzionalaren alde eskaini ahal duen giza kapitala, eta era berean ere bada funtsezkoa profesionaltasunean, zorrotasunean, dedikazioan eta Euskadiren interesen defentsan oinarrituta eskaini ahal duen lan eredia.

Politika ekonomiko alorrean, erakundeetako kudeaketan eta hazkunde agenda biziberritzeko eskaini ahal ditugun elementu bereziak hauek dira:

- **Egitasmoa.** Bizkortze ekonomikorako politika publikoak ezagun ditugu eta Euskadirentzako garapen egitasmo propioa ere bai. Estrategiak epe luzera definitzeko gaitasuna jarduera “efektista” eta epe laburrekotik urrun, esparru politiko instituzionalaren ziurtasuna balore giltzarria baita enpresentzat.
- **Baloreak.** Balore etiko, moralak, gizarte-jarrera baloreak, Euskadi birpentsatzeko baloreak, oraingo krisia aukera bilakatzeko, baina gure buruarekiko exigentzia maila gorena jarriz (euskal emakume eta gizonok gara gure etorkizunaren erantzuleak).
- **Esperientzia.** Esperientzia dugu krisiak kudeatzeko orduan eta Euskadiren bizkortze ekonomikoan.

- **Emaitzak** ere baditugu. Egiatztatuta geratu dira 80. eta 90. krisialdietako emaitzetan.
- **Kudeaketa.** Ondo prestatutako pertsonak, gaitasuna dutenak; Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa globalari ekiteko eta esparru murriztagoan politika ekonomikoan jarduteko.
- **Euskadiren interesen defentsa.** EAJ-PNVren ekimen politikoa beti egon da Euskadiren beharrianak lehenestean oinarrituta, eta mugarik ez dago euskal interesak lehenesteko orduan.

Gure herriak murgilduta gauden egiturazko krisiaren eraginak pairatzen ditu, eta arrisku larritan egongo gara bizkortze ekonomikorako, eta bizitza tokatu zaigun munduko erronketara egokitzeke egitasmo handia abiatzen ez badugu.

Euskadiko egitura demografikoak eta bere tamaina fisikoak lehiakortasun profesionalik gorena exijituko digun etorkizunera prestatzea eskatzen digu. Horrekin batera eskatzen digu, beren bizitza-aukerak aztertzeke orduan, nazioarteko giza kapitalerako lurralde erakargarria izatea; gure sistema publiko eraginkorraren antolaketa- eraginkortasuna ez baitako kontrajarrita gure erakundeen sistemarekin-; eta gure ehun produktiboa, sare teknologiko eta finantzarioa europar merkatu integratuaren beharrianetara egokitzea.

EAJ-PNVk 80. hamarkadako egiturazko krisi hartako urte dramatikoetan Gobernu ardurak hartu zituenetik, betidanik egon da ekonomia produktiboaren aldeko apustuan, gihar teknologikoa eta nazioartekotzea indartzeko. Oraingoan ere egiturazko krisian gaude, kasu honetan historikoa; eta, berriz ere, Nazio Egitasmoa abiatu behar dugu, ez bakarrik krisia gaunditzeke, baizik eta krisitik indartuta irteteko. Hori dela eta, proposamen estrategiko hauek aurkezten ditugu, elkarrekin guk dakigun norabidean aurrera egin dezagun: zorrotasuna eta Lana.

HAZTEKO ETA KRISIALDITIK IRTETEKO LEHENTASUNAK

EAJ-PNVren politika ekonomikoak bere gobernu jarduerak, euskal ekonomiaren ezaugarri eta beharizan bereziei erantzuten dieten hurrengo lehentasun hauen norabidean jarriko ditu.

Helburu bikoitza planteatzen dugu. Alde batetik, oraingo krisi ekonomiko eta finantzarioa konpontzeko erantzuna eskaini nahi dugu, eta garapen ekonomiko iraunkorrerako oinarriak ezarri nahi ditugu, epe luzera enpleguaren sorrera bermatzeko. Horretarako, hurrengo lehentasunei ekingo diegu:

- 1. Gure politika industrialerako eredu propioa berreskuratzea.**
- 2. Aukera, berrikuntza eta ekintzailtza sektore berriak.**
- 3. Nazioartekotzearen eta Euskadi markaren aldeko apustua.**
- 4. Enpresei eta enplegu sortzaileei finantzaketa eskaintzea.**
- 5. Pertsona prestatuak sozialki arduratsuak diren enpresetan.**
- 6. Gizarte-kontzertua eta lan harremanetarako sistema propioa.**
- 7. Zientzia, teknologia eta berrikuntza Sistema, enpresa mundura bideratuta.**
- 8. Azpiegitura fisiko eta teknologiko aurreratuen sarea.**
- 9. Enplegurako, lehiakortasunerako eta gizarte ereduaren jasangarritasun eta iraunkortasunerako fiskalitatea.**
- 10. Sektore publiko eraginkorra, biziberritze ekonomikoa zuzentzeko gai izango dena.**

Lehentasun hauek abian jartzeak bi oinarrizko baldintza beharko ditu: parte hartze eta gardentasun maila gorenetik proposatutako helburuak lortzeko eraginkortasuna bilatzea, eta koste eta mozkin banaketa bat, Euskadirentzat ezinbesteko helburu jotzen dugun gizarte kohesioari kalte egingo ez diona.

1. GURE POLITIKA INDUSTRIALERAKO EREDU PROPIOA BERRESKURATZEA

Enpresak dira aktibitatea eta enplegua sortzen dutenak. Botere publikoei -gure kasuan, euskal erakundeoi-dagokigu, testuinguru egokia sortzea, hau da, inguruak eta baldintza egokiak enpresak eratzeko eta garatzeko, eta gure gizartearentzako oparotasuna sortzeko.

Politika industrialerako eredu propioa berreskuratzea

Industria da Euskadiri aberastasun eta oparotasun handienetakoa eskaintzen dion sektorea. Gure BPGari egiten dion ekarpenari esker, Euskadik espainiar estatuak baino hobeto egin dio aurre krisiari.

Inork ez digu ezer oparitu, aktibo garrantzitsu hau dugu 80. hamarkadan euskal ekonomia eta enpresa modernizatzeko egin zen apustu irmoari esker. Industria sektore nagusien krisi sakon haren aurrean (siderurgia integrala, untzigintza, talde ondasunak, elektrotresna zuriak, elektrotresna marroiak, altzairu bereziak eta arruntak ...) Euskadik, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean, apustu handia egin zuen euskal ekonomia eta jardueraren motore izaten jarraituko zuen industria modernoaren alde. Gainera, industria kentzearen alde zeuden gobernuen eta teoria ekonomikoen kontrara egin zen. Beraien jarrera ondoko esaldian laburbiltzen da “ industria politikarik onena da industria politikorik eza” . Amerikako Estatu Batuetan eta beste herrialdeetan, globalizazioak eskaintzen dituen aukeren aurrean eta 3.000 milioi kontsumitzaile potentzial berri sartu ahal direla kontuan hartuta, aldi batean bertan behera utzi zuten sektore industrialia berreskuratzeko lanetan ari dira orain.

Apustu arrakastatsua izan zen, eta gure industria kulturen oinarrituta, dibertsifikazio ekonomikoa ekarri zuen, teknifikazioa, eta gure enpresetan balorea sortzea, giza baliabide aurreratuak sartzea eta nazioarte esparruan kokatzeko prozesu geldiezina.

Oraingo inguruabarrek eta krisitik arrakastaz irteteko dugun beharrak Euskadiri eskatzen diote bere **izpiritu industrialia berreskuratzea, eta ekonomia produktiboa gogotsu babestea.**

Horretarako, euskal botere publikoek hurrengo puntu hauek landu beharko dituzte:

- Politika Industriala bultzatzea, gure kulturarekin bat eginik, ekonomia produzitzailearen aldeko apustua egin dezan herriaren garapen jasangarria lortzeko euskarri gisa. EBko 2020 Estrategia da lortu beharreko erreferentea. Orain ditugun indarguneetatik abiatuta, Euskadiko industriarentzako sorgune berriak garatuz.
- Lehiakortasun politikak garatuz -hori baita herri batek oparotasuna eta aberastasuna sortzeko duen motorerik handiena -, produktibotasuna hobetzea ekarriko duten faktoreak erarik eraginkorrean lerrokatuz.
- Enpresei modernizatzen eta mantentzen laguntzea, bereziki produkzioan oinarritutako enpresei, industrialki gero eta helduago dauden sektoretan integratuta daudenak. Hori guztia, ETEei eta langile autonomoei behar besteko laguntasuna ematea ahaztu gabe.
- Euskadiko enpresa motore direnei laguntzea, enplegu kopuru handiena eta kalitatezkoa sortzen dutelako. Beraiek ere direlako euskal ekonomia nazioartean kokatzeko aukera handienak ematen dituztenak.
- Ezagutzara, berrikuntzara eta laguntasun ekonomikora lotutako jarduera produktiboaren eta merkaturatze aurreratuaren aldeko apustua eginik, eta enpresen planifikatze estrategikoa erraztuz.
- Enplegua sortzeko gaitasun handia duten sektoreetan inbertsioak erakarriz.
- Mundu mailako enpresa proiektu liderrak identifikatuz, eta beren azpian “nitxo ekonomien” kultura sortuz.
- “Smart manufacturing”/“smart diversification” kontzeptua bultzatuta, hau da, produktuak produzitzeko eta lan horretan espezialitzatzeko teknologiak erabilia, kalitate handiko produktuak egitea ahalbidetuz, sektore espezializatueterako eta produkzio berritzaileen bidez.
- Euskal enpresak eta beren erabaki guneak herrialdean eta euskal pertsonen ardurapean mantentzea babestea, atzerriko inbertitzaileek krisi egoera baliatuta gure enpresarik onenak eskuratzeak suposa dezakeen arriskuaren aurrean. Hau guztia bateragarria da Euskadin enplegua eta aberastasuna sortu duten eta sortzen jarraitu behar duten atzerriko inbertsioei ematen diegun laguntasunarekin.

- Euskal enpresa taldeak eta korporazioak eratzea sustatuta, balore kate luzeagoak izan ditzagun. Azken finean, motore multzoak eratzea, epe luzera oparotasun handiagoa sortzeko gaitasuna izango dutenak. Gure enpresak handitzea sustatzea, fusioak eta aliantzak bultzatuz eta ahalbidetuz.
- Egitasmoak ezartzea, kalitatea bermatzeko planak sustatzeko eta laguntzeko eta etengabeko hobekuntza estrategiak ezartzeko, arlo orokorrean zein jasangarritasuna moduko esparru zehatzetan (adibidez: produktuak ingurumenari egiten dion eragina esaten duen egiaztagiria) Kalitateak izan beharko du gure enpresen nortasunaren ezaugarrietako bat.

2. AUKERA, BERRIKUNTZA ETA EKINTZAIETZA SEKTORE BERRIAK

Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa izan zen Euskadiren lehen eraldaketaren arrakastaren oinarrietako bat. Bigarren honi arrakastaz ekiteko, estrategia hau ezinbestekoa da oraindik, era jasangarrian eusten baitie hazkunde ekonomikoari eta enpleguari. Gainera, dibertsifikatzeak berrikuntza dakar berarekin .

Euskadik oinarri sendoak ditu gaur egun, gure ekonomian dibertsifikazio prozesu arrakastatsuak martxan jartzeko. Industria alorrean dugun jakintzatik eta teknologian dugun ezagutzatik abiatzen gara, gure herrialdearen eta inguru naturalaren ezaugarriak kontuan hartuta. Era berean, kontuan hartu behar da, Euskadin lehentasun sektoreak zehazteko eta bereziki laguntzeko antolamendu ekonomikoa egiteko dugun gaitasuna.

Gure ustetan Euskadin hasteko aukera eta tokia duten **ekonomia eta enplegu guneak** hauek dira, besteak beste:

- Eko-teknologiak eta “ekonomia berdea”. Euskal hiritar guztien zerbitzura egongo litzatekeen helburua ez litzateke halakorik izango, lan hori ingurumena errespetatu gabe egingo balitz. Hortik abiatuta, EAJ-PNVk ezinbesteko jotzen du inguru hori mantentzea eta berreskuratzea, gure bizitza kalitatea hobetzeko, hori delakoan jarduera ekonomiko ororen azken helburua. Hau guztia egin behar da, ondo kudeatutako ingurumena berrikuntza iturri dela ahaztu gabe. Ondorioz, hazkunde eta enplegu sorburu ere bada.
- Energia. Bere izaera transbertsala kontuan hartuta, guk baliabide urriak ditugula eta baliabide hauek asko kontsumitzen ditugula kontuan hartuta, energia ere bada gure ekonomiarako lehen mailako faktore estrategiko bat. Euskal politika energetikoak jarraitu behar du, alde batetik produkzio garbia, garraio eraginkorra eta administrazio eta kontsumo neurtuagoak ahalbidetuko duten jarduerak bultzatzen, eta beste alde batetik energia berriztagarriek eta eraginkortasun energetikoak enplegu arloan eskaintzen dituen aukerak baliatuta . Hortik ere, estrategia energetikoak berebiziko garrantzia hartzen du EAJ-PNVk abian jarriko dituen lehiakortasun politketan; ondorioz, 2020 urterako estrategien arabera lan egingo du.
- Industriari lotutako zerbitzuak. Teknologien inguruan nahikotxo garatu diren arren, oraindik asko dago egiteko finantza zerbitzuen inguruan, adituen aholkularitzan, merkatal zerbitzu aurreratuetan, ukiezinetan, diseinuan ...

- Hiri garapena eta “smart cities” delakoetatik eratorritako aukerak, itsasoari, kostari eta arrantza jarduerari, eta nekazarigarapenari eta kalitatezko nekazaritza-produkzioei lotutako jardun berritzailea. “Bizitzarekin” erlazioetatutako sektorea (osasuna, laguntasun soziala, biztanleriaren zahartzetik eratorritako beharrezkoak asetzea) gizarte berrikuntza, kultura, sorkuntza eta diseinua; kalitatezko turismoa eta gastronomia; teknologia berriak, on-line zerbitzuak eta tele-lana; eta merkataritza.

Klusterizazioa, berrikuntza eta ekintzailtza

Krisialdi ekonomikoari aurre egiteko gaitasun handia erakutsi duten herri eta erregioen esperientziak agerian uzten du, elkarrekin lotuta dauden klusterren kontzentrazio altua dagoen tokian, berrikuntzarako eta enpresak sortzeko gaitasuna ere hazi egiten dela. Hori da EAJ-PNVk bultzatuko duen bidea, oraingo **Kluster sarean** sakonduz eta egitura hobetuz, eta sektore ezberdinen arteko lankidetzak bultzatuz, beren lehiakortasuna hobetzeko.

Era berean, aukera berriak bilatzeko eta aurkitzeko ahalegin horretan, ekintzailtza kontzeptu berri batek du funtsezko egitekoa. Indarra ekintzaile gazteengan eta autoenpleguan jartzeko mugetatik harago, enpresa kudeaketan esperientzia duten sustatzaileek hazkunderako eta nazioartekotzerako bidean abian jarriko dituzten ekimenak laguntzeko. Egitasmo ekintzaile hauek erakundeen babesik handiena jaso beharko dute, bereziki motore sektore, eta aldi berean jasangarriak eta Euskadiren interesekoak badira.

Guztiz ezinbesteko jotzen dugu enpresa egitasmo gehiago izatea, horretarako berreskuratu beharko dugu ekintzailtza eta berrikuntza balorizazioa, hala gure gazteen artean nola enpresen barruan ere. Enpresa barruko egitasmo ekintzaileek arreta berezia jaso beharko dute enpresei babesa emateko politikan, enpresentzat berrikuntza iturri izateaz gain, garapen pertsonal eta profesionala suposatzen dutelako egitasmo hauek zuzentzen dituzten pertsonentzat. Era berean, pertsonen inplikazio handiagoa ematen da erakundeen garapenean. Ko-ekintzailtza egitasmoak lagundu behar dira beren bizitzako agintea hartzea erabaki duten pertsonen arteko lankidetzak formula gisa; eta era berean, beren autoenplegua indartzea eta enplegu berriak sortzea bultzatuz.

Halaber, ekintzaitzaren beraren ekosistema hobetu beharra dago, gune fisiko eta birtuala, bertan eragileak (unibertsitate sistema, enpresak, administrazio publikoak, finantza erakundeak) koordinatuta parte har dezaten, eta “leihatila bakarrean” bizkortzeko, harremanetarako, hausnarketarako, ekimenerako, aitortzarako eta zabalkunderako neurriak garatzeko. Start-up delakoak sustatu behar ditugu, non eredu arrakastatsu baten 4 elementuak konbinatzen baitiren: ETE ekintzaileak, teknologia zentroak, unibertsitateak eta finantza erakundeak, eta babes handiagoa eman behar diogu arriskuak hartzeko kulturari; era berean, enpresa berriak sortzeari lotutako administrazio tramiteak murriztea eta arintzea lortu behar dugu; eta, era berean, enpresa hauei beren lehen urteetan zerga arloko pizgarri berriak eskaintzea.

Halaber, ezinbestekoa da gaur egun **informazio teknologiek** enpresentzat, hobetzeko edo lehiakortasuna enpresariala ez galtzeko, edo enpresa jarduera berrien motore bihurtzeko duten gaitasunagatik suposatzen duten oinarri operatiboa kontuan hartzea eta babestea.

3. NAZIOARTEKOTZEAREN ETA EUSKADI MARKAREN ALDEKO APUSTU IRMOA

Euskadi kanpora irteteak, nazioarteko eszenatokietan beren balioa azpimarratzeak eraginkortasunez laguntzen dio gure garapen ekonomikoari. Nazioartekotzea behar funtsezko eta ekidin ezina da, **atzerrian hedatuta gure enpresak indartuko direlako**, eta horrekin batera enplegua eta oparotasuna eragingo delako.

Errealitate berria. Nazioartean kokapena bilatzea, esportazioetatik harago

Bere esportazioek eta herrialde gainerakorretan duen kokapenak suposatzen duten berezitasunek, orain bizi dugun krisi ekonomiko honetan, agerian utzi dute horixe dela hain zuzen jarraitu beharreko bidea. Etorkizun hurbilean, esportatzea ez da nahikoa izango. Merkatal harremanek, eta bereziki herrialde gainerakorrekin izango direnetan, produktuak ez ezik, inbertsiorako eta ko-garapen teknologiko eta industrialerako aliantza iraunkorrak ere eskatuko dizkigute. Kontua ez da nazioartekotzea barne eskariaren jaitsiera konpentsatzeko erantzun gisa erabiltzea, baizik eta nazioartean hedatzea, gure enpresen estrategia proaktibo gisa garatzea.

Eszenatoki honetan, Euskadi nazioartean ezagutzera emateko prozesuak ikuspuntu integrala behar du, ikuspuntu europeista batetik honakoei ekingo diena:

- Harremanak ditugun merkatu nagusiak dibertsifikatzeari.
- Nazioarteko testuinguruan emango diren aldaketetara egokitzeari.
- Gure errealitate sozio-ekonomikoarekin ditugun kide estrategiko osagarriekin lankidetzeta eta konplizitateak ezartzeari.
- Munduko aniztasun kulturala baloratzea eta errespetatzeari.
- Nazioarteko zerumugak gure gazteriaren garapenaren alde eskain dezakeen etengabeko prestakuntza eta aukerak kontuan hartzeari.

Beharrezko nazioartekotzeari laguntzen dioten jardueren artean dago gure **enpresen dimentsioa handitzeko beharra**. Oraingo enpresa egitura atomizatu eta zatitutik hazkunde bidea hartuko duten eta nazioartean egongo diren korporazioetarako jauzia eman behar da. Horretarako, eraginkortasun handiko jarduerak dira enpresen elkarketa edo enpresen batura. Zentzu berean, enpresa dimentsioaren hazkundera eragozten duten arau edo elementu politiko administratiboak kendu beharko ditugu.

Kanpo ekintza plana

Zentzu berean, Eusko Jaurlaritzaren oraingo Kanpo Ekintzarako Plan Estrategikoa berriro zehaztu eta diseinatzeko beharra azpimarratu behar dugu, bere barnean enpresak nazioartekotzeko ekimenen garrantzia indartuta, euskal enpresak nazioartean kokatzeko eta kanpoko merkatuetara bideratzeko; eta, era berean, Euskadi markan bultzatzeko dinamikan babes, bizkortze eta laguntasun tresna instituzionalak eraginkortasuna garatzerik izan dezan.

Plan horretan, egiteko garrantzitsua izango dute elkarteek eta enpresa sareek, eta bereziki Merkataritza Ganberak. Erakunde hauek esperientzia zabala dute gure enpresen internazionalizazioari emandako babesean.

Plan honek besteak beste hartu beharko ditu:

- Euskadirentzat estrategikoak diren merkatuetara zabaltzeko nazioartekotze plan berezituak, besteak beste Asia eta Pazifiko aldeko ekonomia gainerakorrek, Latinamerikako herriak, Europar Batasuneko kide berriak, Afrikar Iparraldeko eta AEBetako merkatua.
- Euskadik merkatu estrategikoetan dituen ordezkaritza komertzialak bultzatzea, egiazko diplomazia korporatiboa ezarri ahal izateko, gure enpresengana erosleak eta gure Herrira inbertsioak erakartzeko xedez.
- Euskadiren egitekoa indartzea Uztai Atlantikoa deritzon euro-erregio barruan.
- Herrialde, erregio eta metropoli inguru handiekin akordio estrategikoak ezartzea, gure aukera sektoreak garatu ahal izateko, lankidetzeta eta osagarritasunean oinarri harturik.
- Gure enpresa sareak nazioartekotze arloan trebatu. Bereziki gure gabeziarik handiena denari begira: hizkuntzen ezagutza, ingelesa batik bat.

- Gure enpresen nazioartekotzerako finantzaketa tresna bereziak garatzea.
- Gure Know-how delakoa nazioartean zabaltzeko egitasmoei laguntasun berezia ematea, gure ezagutzari onurak ateratzeko, besteak beste laguntasun tekniko eta teknologikoan, laguntasun estrategikoan eta negoziaren alorrean.
- Gure enpresak nazioarteko lobbying estrategietan sartu daitezen bultzatzea.
- Enpresen artean nazioartekotzera bideratutako lankidetzaren sustatzea: balore katea luzatzeko akordioak, ETEen nazioartekotzea, nazioarte mailan hedatuta dauden euskal enpresa motoreekin adostutako akordioetan oinarrituta.
- Atzerriko kapital eta inbertsioak erakartzea.

Euskadi marka

Gure Herriak errealitate berria bizi du gaur egun, eta arestian aipatutakoarekin guztiarekin, ezinbestekoa da denen artean -enpresa eta erakundeok- Euskadik kanpoan duen izena eta ospea **“Herri fidagarri”** batena izatea lortzea. Hori da, zalantzarik gabe, Euskadiren balorerik handienetakoa, eta gainerakoei albait arinen adierazteko gai izan beharko genuke.

Herri-marka duten herriek lehiakortasunerako abantaila handia dute beren enpresek nazioartean garapena izan dezaten, merkataritzan dituzten aukerak hobetzeko, beren irudi propioa hobetzeko, turismoa, talentua eta inbertsioak erakartzeko, eta barruko interesak eta konplizitate sareak sortzeko, herriaren beraren garapen jasangarri eta iraunkorrari lagunduko diotenak.

Zalantzarik gabe, Euskadik baditu ahalmen eta elementuak, inolako mendekotasun harremanik gabe, **“Basque Country” herri-markaren** estrategia integral eta propioa garatzeko.

Gure herri marka hau, komunikatzeko dugun aniztasunetik abiatuta sortu beharko da, erabiliko den esparru ezberdinetan garatu ahal izateko behar den malgutasunarekin (turismoa, gure enpresen nazioartekotzea, nazioarteko lankidetzak, berrikuntza sareak edo talentua erakartzea; ahal den neurrian, gure-gureak diren ezaugarrietan oinarritu beharko da, hau da, gure nortasuna, aniztasuna, kultura, euskara edo gure bizitza kalitatea; euskal gizarte osoak ezagutua eta defendatua izan beharko du; eta gure “enbaxadoreengan” jarriko du oinarria eta babesa: enpresa, kultura, kirol munduko liderrak, eta nazioarte dimentsioko euskal enpresak. Euskal enpresak izango dira presentzia indartua duten eta egiten duten lan onagatik ezagunak diren herrietara sartzeko ateak.

4. ENPRESEI ETA ENPLEGU SORTZAILEEI **FINANTZAKETA ESKAINTZEA**

Politika industrialak eta enpresa berriak sortzeko laguntasun politikak finantzaketa bermatzeko sistema behar du, jarduera eta sektore ekonomiko berriak bultzatzeko, eta ohiko jarduna mantentzeko. Zalantzarik ez dago, **enpresak finantzatzeko erraztasunak izatea da gure herriaren garapenerako elementu bereizgarria.**

Mailegu arloko atzeraldi egoeraren eraginez, enpresa askori gertatzen zaio ez dutela inolako bermerik beren eguneroko jardunaren birfinantzatzea negoziatzeko orduan. EAJ-PNVrentzat lehenetsi beharreko helburua da egoera hau hartzekodunen konkurtso kate batean edo bestean erortzea eta lanpostuen galera saihestea. Horretarako, lan egingo dugu finantza erakundeek enpresei maileguak eman diezazkieten, beren aktibo zirkulatuak finantzatzeko beharra dutenean.

Inbertsioetarako finantzaketari dagokionez, tradizionalki euskal herrialdean errotzeko enpresa egitasmoak bilatu izan dira. Gaur egun, lan ildo hau albo batera utzi gabe, ezinbestekoa **da inbertsio funtsak erakartzea**, euskal enpresetako egitasmoei finantzaketa eskaintzeko. Ekonomiarik dinamikoenen ezaugarri dira parte hartze eta finantzaketa eredu zabalenak, besteak beste etorkizuneko industria sektoreak bultzatzeko, eta nahi diren sektoreetan enpresak sustatzea bultzatzeko inbertsio funtsak eta arrisku kapitalak. Euskadik ere eraginkortasun handiagoz sartu behar du errealitate honetan.

Gure helburuen artean dago, hainbat inbertsio funts, atzerritarrak batez ere, tamaina handiko egitasmo proiektuetan baino ez sartzeari suposatzen digun mugapena gainditzea. Akordio publiko-pribatuen bidez, tamaina txikiagoko egitasmoetan sartzeari lortu behar dugu.

Euskadi egiazko **finantza tokia** izatea lortu beharra dago, bertan finantza erakundeek baliabideak eskuratu ez ezik, herriaren eta bere enpresen zerbitzura ere jar ditzaten. Horretarako, elkar eragineko berme sozietateak bultzatu behar dira, finantzaketa erakunde sozialen inbertsioak (EPSVak) ekonomia produktibora bideratu- oraingo lege eragozpenak ezabatuz- eta baloreen bigarren merkatua garatzeko lanarekin jarraitu. Eta, jakina, euskal finantza erakundeek gure enpresen garapenarekin duten konpromisoa mantendu beharra dago.

Finantza erakundeei finantza eta mailegu alorrean eskatzen zaien ahaleginarekin batera, **esparru publikoaren aldetik maileguetarako abal gisa** jarduteko erabakia gauzatu beharko da; eta berean, finantza erakundeei dagokien egitekoaren inguruko hausnarketa beharko da, bereziki Euskal Finantza Institutuari dagokionaren aldetik, mailegu ofizial arloko eskumenak geureganatuz eta Euskal Finantza Institutua sustatuz.

Mikroenpresak sortzeko egitasmoetarako finantzaketari dagokionez, ematen du funts galduko diru laguntasunen ereduaren ordeztu, beste eredu bat jarri beharko dela mailegua erraztean eta mailegua eskuratzeko bermeak ahalbidetuz oinarritua, bai enpresa sortzeko unean, baita bere garapenerako hastapenetan ere. Enplegua sortzeko ahalmena izango duten egitasmoak laguntzen jarraitzea da kontua, baina administrazioak egitasmo arrakastatsuetara bideratutako funtsak Administrazioa itzul daitezkeen, egitasmo berriak babesten jarraitzeko. Enpresak sortzeko babes finantzario eredu berri honetan, aurrerako pausuak eman beharko dira arrisku-kapitalaren espezializazio sektorialean eta inbertsio pribatuaren parte hartze handiagoan (business angels).

Amaitzeko, ez dugu ahaztu behar bereziki sustatu behar dugula **inbertsio ukiezinen finantzaketa**, ezinbestekoa baita lehiakortasun oinarri honek kreditua jasotzeko aukerak izatea.

5. PERTSONA PRESTATUAK SOZIALKI **ARDURATSUAK DIREN ENPRESETAN**

Ekonomia lehiakorraren erronka lortzeko, ezinbestekoak dira pertsona eta enpresa lehiakorrak. Lehiakortasun hau eman behar da termino ekonomikotan (produktibotasuna) eta termino sozialetan (ardura, lankidetzeta, solidarotasuna). Horregatik, Euskadi lehiakorra lor dezagun, ondo prestatutako pertsonak behar ditugu eta sozialki arduratsuak izango diren enpresak, kontzertazioaren balorea arau nagusi izango duen lan merkatua osatzeko.

Gaikuntzaren erronka

Europar lan merkatuaren joeraren inguruan egin diren azken azterketen arabera, 2012 urtean Europar Batasuneko lanpostuen % 35ean kualifikazio maila altua beharko da, hau da, 2010 urteko egoerarekin alderatuta, mailaketa 6 puntutan igotzea suposatuko du. Alderantziz, kualifikazio baxuko lanpostuak % 23 izatetik igaroko dira Europar izango diren enplegu guztien % 16 izatera. Aurreikuspenen arabera, 2020 urtean, kualifikazio baxuko pertsonen langabezi tasa kualifikazio altuko pertsonena baino 4 bider handiagoa izango da.

Errealitate honek agerian uzten du euskal hiritargoaren kualifikazio handiagoa sustatzeko dugun beharra. Kualifikazio honek bat egin beharko du gure produkzio ehunaren beharrezkin. Era berean suposatzen du prestakuntzak izan behar duela berrikuntza sistemaren laugarren osagaia. I+G+Btik igaroko gara I+G+B+P kontzeptura.

EAJ-PNVk oinarritzko printzipiotzat dauka **prestakuntzarako aukera berdinak ematea**, euskal hiritarrik gera ez dadila bere gaitasunak behar bezala garatu gabe, beharrezko prestakuntzara sartzeko baliabide ekonomikorik ez duelako.

Euskal gizartearen kualifikazioa hobetzen jarraitzeko dugun testuinguruan, hezkuntza sistema elementu nagusia da Euskadiren eta bere ekonomiaren etorkizuneko garapenari eusteko orduan. Derrigorrezko zein derrigorrezkoaren osteko kalitatezko hezkuntza orokorraren alde lan egiteaz gain, ezinbesteko jotzen dugu hurrengo ildoek:

- Jakintzaren esparru ezberdinetan bikaintasuna bilatzeari ekiten dion unibertsitateko jarduera bultzatzea (publikoa zein pribatua). Helburu hau lortzeko, egiteko garrantzitsua izan behar du zentro arteko lankidetzak lehiakorrak; halaber, zientzia eta teknologien esparruan, teknologi zentro eta enpresekiko harremana izan behar du, era honetan, jakintza eta berrikuntza sortzen laguntzeko, geroan jarduera ekonomikoaren esparrura eramateko. Derrigorrez ekin behar diogu unibertsitatea erreformatzeari, Unibertsitatea Ezagutzaren Gizarte honen zati oso garrantzitsua delako.
- Kalitate handiko lanbide heziketaren aldeko apustua egitea, lanerako gaitasun eta trebeziak garatzeko, oraingo eta etorkizuneko jardura ekonomikora bideratuta, eta eskuratzen diren gaitasun eta trebetasun hauek lan merkatu aldakorren beharrezanetara egokitzeko gaitasunarekin. Elkartutako zentroak dira honen adibide, esate baterako, makina erremintakoa. Lanbide Heziketaren azpi sistemen integrazio osoa lortzea, Hezkuntza eta Enplegu Sailen arteko banaketa gaindituz.
- Euskal gizartean, ezinbestekoa da eleaniztasuna, nazioartekotze prozesura egokitu ahal izateko, gero eta merkatu globalagoetan eta, aldi berean, espezifikoen aritzeko gaitasunekin. Zehatzago esanda, belaunaldi gazteenei begira jarri behar dugu hirueletasuna lortzeko xedea.

Trebatzeko erronka honek berebiziko garrantzia du gure enpresa, instituzio eta erakunde sozialetako kudeatzaileen kasuan, gure erakundeen lehiakortasunean duten inplikazioagatik, eta itxuran eta lidergo arloan duen eraginagatik.

Hezkuntza-prestakuntza-enplegua eredu berriak

“Lehenengo heziketa, gero lana” eredu tradizionalak baliagarri izateari utzi dio. Gaur egun bizi dugun Ezagutzaren Gizartean, hezkuntza, prestakuntza eta enpleguaren arteko espazioak eta tartekak elkar gurutzatzen dira. Eredu berri honetan lehenago hasiko gara lanean, hezkuntza eta enplegua uztartuz, eta 30 urtera arte prestakuntzari dedikazio handia eskainiz. Eta pertsonak ez diote prestakuntzari sekula utziko. Prestakuntza jarraitua mantenduko dute eta bitzita profesionalean 2 edo 3 birziklapen nagusi biziko dituzte.

Eredu honi erantzuteko, Euskadik **etengabeko lanbide heziketa** ahalbidetzeko ingurua sortu behar du, funtzio honetan enpresak inplikaturik, prestakuntza zentroekiko eta ezagutza gordetzen duten beste erakundeekiko harremana indartuz (Teknologi Zentroak eta I+G+B sistemako beste eragileak).

Pertsona guztien potentziala baliatzea eta garatzea

Edozein lehiakortasun politikaren helburua da, pertsonen potentziala baliatzea eta garatzea. Beste hitzetan “talentua kudeatzea” deitzen duguna.

Gutziz ezinbestekoa da baldintza egokiak sortzea, euskal hiritar guztiek beren gaitasun profesionalak osotasunean garatzeko aukera izan dezaten. Eta hori, are garrantzitsuagoa da une honetan, gure biztanleria aktiboaren zati handi bat, bereziki gazteak, langabezia dauzten garaian.

Euskadik **gazte lana bultzatzeko erronka** handiari ekin behar dio, gure langabezi tasek batzuetan besteko orokorra bikoizten dutelako, eta gazteen langabezia gazte guztien % 30era iristen den garai honetan. Lan merkatuaren oraingo egoerarekin, gainean ditugun arriskurik handienetakoa da gazteek enplegurik ez lortzea, edo beren gaitasun, maila, eta asmo profesionalak beteko ez dituzten lanak besterik ez lortzea. Ezin dugu talentu hori galtzen utzi; eta horretarako, Euskadik hezkuntza esparruko herrialderik aurreratuenetako esperientziekin bat eginik, hurrengo ildo hauek jorratu behar ditu:

- Enpresen parte hartze handiagoa hezkuntzan eta prestakuntzan, ez bakarrik curriculum-a zehazteko orduan, baizik eta baita ikasgaiak emateko orduan.
- Lehen lan aukeretak planak sustatzea, enpresa munduan sartzea sustatzea, lehen lanpostua lortzeko oztupoa den esperientziarik eza gainditzeko.
- Ikasleek produkzio jardunean parte hartzea: lana-ikasketak txandaketa, lan egiteko errutina ondasun eta zerbitzu erabilgarriak sortzeko motibazio bilakatzea, ikerkuntza, gizarte lankidetzaren proiektuetan parte hartzea.
- Garrantzi handiagoa ematea gaitasun sozialak eskuratzeari.

- Gazteek sorkuntzarako eta ekintzaitzarako duten gaitasuna bideratzeko mekanismoak eta programak ezartzea.
- Hizkuntzei eta mugikortasunari ematen zaien garrantzia handitzea, atzerriko praktika eta lanen ostean bueltatzeko bermeak sustatuz.

Erronka osagarri bat dago, hau da, emakumeen kolektiboaren potentziala osotasunean baliatzea. Euskadik eraginkortasunez jarraitu behar du berdintasun politikan hasi duen bidean; emakume eta gizonen arteko berdintasuna, helburu demokratiko ezinbestekoa izateaz gain, beharrezana ere bada gure herriaren garapen ekonomiko eta sozialerako. Eskubidea izateaz gain, berdintasunaren alde lan egiteak suposatzen du gure gizartearen erdiak eman dezakeen balioa hobeto aprobetxatzea.

Gure konpromisoa da **emakume eta gizonen arteko** uko egin ezinezko berdintasuna bermatzea, helburu hori lortzeko politikak sustatuz: lan esparrura sartzeko eta maila hobetzeko aukera berdinak, lana eta familia uztartzea ... Gainera, emakumea, enpresa eta gizarte osoa kontzientziatu beharko dugu, lanbideetan generorik ez dagoela ikus dezaten.

Argi izan behar dugu, oraingo egoeran, are zailagoa dela talentu kualifikatu guztia Euskadin mantentzea. Horregatik, hain zuzen, **talentu hori kudeatu behar dugu**, bueltatzeko lanbide planak eginez eta pertsona hauek kanpo aldean dauden bitartean, euskal enprekin lankidetzan aritu daitezela ahalbidetuz, beren nazioartekotze proiektuak lagunduz .

Horrekin batera, ezinbestekoa da **nazioartetik talentu egiaztatuta erakartzeko apustu irmoa** egitea. Herri aurreratu batek profesional bikainak erakartzeko gaitasuna izan behar du, eta talentuaren mugikortasuna ere bada nazioartean lehiakor izateko giltzarria.

Ezin ditugu ahaztu **Euskadin bizi diren etorkinak**. Pertsona hauei lagundu behar diegu lan merkatuan integratzen, modu hori gure gizartean bete-betean integratzeko bidea delakoan. Lan hori egin beharko dugu hizkuntza gaitasuna eskuratzeko planak barnean hartuko dituzten lan munduratzeko egitasmoak garatuta.

Sozialki arduratsuak izango diren enpresak

Ezagutzaren gizarteak pertsonen garapen profesionalaren aldaketa ekarri baldin badu, gauza bera gertatzen da enprekin. Errealitate berri honetan, pertsonak dira enpresen aktiborik garrantzitsuenak; hortaz, giza baliabideak erakartzea, mantentzea eta garatzea dira enpresa kudeaketaren funtziorik oinarrizkoenetakoak.

Testuinguru honetan, berebiziko garrantzia hartzen du Enpresen Ardura Sozialak. EAJ-PNVk kontzeptu hori euskal enpresa sarean sustatzen jarraitu nahi du. Inguruan duten gizartearekin eta interes taldeekin, bereziki langileekin “ irabazi-irabazi” harremanak mantenduko dituzten enpresak, lan egonkortasunari, lan baldintzei eta giza baliabideen garapenari balore berezia emanez. Zentzu honetan, sozietate merkantiletatik egin behar da **eduki sozialagoa izango duten enpresa ereduatarako jauzia**, non balore partekatua sortuko den, gizartea eta enpresak elkarrekiko onuragarri izango diren, bizkarra eman beharrean elkar elika daitezzen.

6. GIZARTE-KONTZERTUA ETA LAN HARREMANETARAKO SISTEMA PROPIOA

Enpresak lehiakorrak izan daitezen, beharrezkoa da kontzertu sozialerako giroa izatea, enpresen garapen eta hazkundera inguru egonkor eta onean eman dadin. Une honetan, ezinbestekoa da kontzertu sozialak 80. hamarkadako krisia gainditzeko izan zuen egitekoa gogoratzea.

Zoritxarrez, Euskadik urteak daramatza egoera horretatik urrun. EAJ-PNVk ezinbesteko jotzen du Lan Harremanetarako Euskal Sistema garatzea, non elkarriketa soziala eta adostasuna ohiko izango diren, eta gatazka, salbuespen.

Horretarako, **Europar iparraldeko herrialdeetako lan eta gizarte eredu**etara hurbildu beharra dugu; eredu hauek babes maila handia ematen diete beren langileei, eta “segurtasun” kontzeptu batetik abiatuta. Honek ez du esan nahi lanpostua galtzeko posibilitate eskasa dagoenik, baizik eta handia dela langabezi egoeretan ematen den babesa; horrez gain, laguntasun zerbitzuak ere ematen dira, lan merkatura arin bueltatzeko aukera handiak izan daitezen.

Enplegua eta gizarte kohesioa elkarri lotuta doazenez, ezinbesteko jotzen dugu:

- Enpresa barruan enpresari eta langileen artean behar diren orekak lantzea, beti ere alde bakoitzaren autonomia eta lortutako akordioen jasangarritasuna errespetatuta.
- Enpresen barruan, lanaren antolaketarako malgutasun akordio orekatuak ahalbidetzea. Zentzu honetan ezinbesteko jotzen dugu egoera berezietan lanaldi murriztuko lan malgutasuna sustatzea, besteak beste lana eta ikasketak uztartzeko, familia hazteko aldiak, birziklapen profesionala edo erretirorako bidean.
- Enpresetan “errenta itunak” lortzea, enpresa zehatz batean soldatetan sakrifizioak egin behar diren kasuetan, sakrifizio hauek konpentsatu ahal izan daitezen etorkizunean, mozkinetan soberakinak baldin badaude.
- Lan prekarietateari aurre egitea, lan kontratuen egonkortasuna ahalbidetzeko neurriak sustatuz. Enpleguaren behin-behinekotasunak eragin sozial eta pertsonalak ekartzeaz gain, lehiakortasuna beharrezkoa ere suposatzen du.

- Ekonomia sozial eta kooperatiborako ereduak indartzearen aldeko apustua egitea, langileek enpresa kudeaketan parte hartzea sustatzen dutenak, eta lan errekerimenduetan malgutasuna eta egokitzapena eskaintzen.
- Arrazoi baten edo besterengatik, lan merkatutik kanpo geratu diren, edo bertan sartzeko aukera izan ez duten pertsonen lan munduratzeko arina ahalbidetzea, prestakuntza eta gaikuntza programak gizarteratzeko bide gisa indartuta.

Esanguratsua ere bada Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek beren enplegu planen eta lan fundazioen bidez, kohesioari egiten dioten ekarpena. Hortaz, hurrengo gobernuaren egitekoa izango da esparru eta arlo horretan toki aktiboa berreskuratzea.

Gogoratu beharrekoa da, Euskadik **enplegu politika pasiboak kudeatzeko** aukera eskatu beharko lukeela, 1979ko Gernikako Estatutuan (12 eta 18 artikulua) aurreikusten denari jarraiki. Zalantzarik gabe, enplegu eta kohesio sozio-laboralerako politikak ezinbestean beharko luke enplegu politika eraginkorrak eta pasiboak egokiro uztartzea.

7. ZIENTZIA,TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMA, **ENPRESA MUDURA BIDERATUTA**

Herrialderik lehiakorrenak dira beren enpresei beraien alde eta beraiekin lan egingo duen zientzia,teknologia eta berrikuntza sistema eskaintzeko gaitasuna dutenak.

Eraginkortasun handiagoa eta I+G inbertsio handiagoa

EAEko enpresak eta enpresei ematen zaizkien zerbitzuak, oro har,maila ertaineko sektore teknologikoetakoak dira. Honek eragiten du lehiakortasuna galtzea, bereziki ekonomia gainerakorren aurrean.

Dena dela, oraingo egoera honek ez gaitu lortutakoa gutxiestera eraman behar, bereziki EAEko VIII. Legegintzaldian zientzia eta teknologia alorrean lortutakoari dagokionez. Antolakuntza alorrean eta ekonomikoki egin zen esfortzua oso garrantzitsua izan zen, baina oso errealitate ahuletik abiatu ginen: espainiar zientzia eta berrikuntza sistemaren garapen maila baxua.

I+G+Bn eginiko inbertsioak gelditu egin dira Euskadin aldi honetan. Egoera hau gainditu beharra dago, eta lehenetsi beharreko apustu bilakatu behar da euskal enpresen eta euskal ekonomiaren lehiakortasunari begira. Gure apustua da **zientzia eta teknologia inbertsioa gure BPGaren % 3ra iristea**, Europar Batasuneko herrialderik aurreratuenen maila berean, besteak beste Europar Iparraldeko herrialdeak eta Alemania. Baina, inbertsio horren bolumena bezain garrantzitsua da bere eraginkortasuna hobetzea eta egindako ahaleginaren balioa nabarmentzea.

Eredu berria, enpresen parte hartze handiagoarekin

I+G inbertsioa handitzeaz gain, oso garrantzitsua da egiten diren inbertsio hauen eraginkortasuna handitzea. Gure erronka izan behar da ahalegin hori guztia balore bilakatzea; era berean, emaitza ekonomiko ere bilakatu behar dira herrialde osoan aberastasunaren eta enpleguaren hazkunde jasangarria ahalbidetzeko.

Gaur egun antolaketa egitura egonkorra dugu, eta medio batzuk ditugu- oraingo gobernuaren kudeaketa ezeraginkorraren eraginpean- herrialdean zientzia eta teknologia bultzatzeko. Adibide gisa honakoak esango ditugu:

- Euskadin Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien artean izenpetu zen akordioaren bidez Enpresa Lehiakortasunerako eta Gizarte Berrikuntzarako garatu ziren Planak.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan bera; eta hori, oraingo gobernuak egin duen garapena berandukoa eta eskasa izan den arren.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Kontseilua, zientzia eta berrikuntza politikarako, aholkularitzarako eta buruzagitzarako organo gisa.
- “Ikerbasque” Zientziarako Euskal Agentzia eta berrikuntzarako “Innobasque” agentzia.

Alderdi guztietako berrikuntzan aurrera egiteak, **euskal zientzia, teknologia eta berrikuntza sistemaren egituraketa berregitea du beharrezko**, zehaztu zenetik denbora luzea igaro delako. Ereduaren zehaztapen berri honek honako jarduera ildoetan oinarritu beharko luke:

- Oinarrizko zientziaren ikerkuntzarako lehentasunak ezartzea, enpresa berriak Euskadira erakartzeko duen ahalmen osoa kontuan hartuta, ikerkuntza zentro berezituak izatea funtsezko faktorea baita kokapena erabakitzeke orduan. Oinarrizko ezagutzaren esparruan, bikaintasuna lortzea.
- Esfortzu publikoaren eta pribatuaren arteko oreka bilatzea, ekimen pribatuak berrikuntzan inplikazio handiagoa hartuz, bereziki unibertsitate jarduerak finantzatzeko orduan, esate baterako Basic Excellence Research Centres-BERC izenekoetakoak.
- Produktu eta prozesu industrial “tradizionaletan” egiten den berrikuntza maila igotzea, eta ez bakarrik telekomunikazio eta zerbitzu informatikoen alorrean.
- Ikerkuntza teknologikorako erakunde tutoratuen edo laguntasun publikoak jasotzen dituzten erakundeen helburuak, enpresak sortzera edo enpresetara transferentzia teknologikoak egitera bideratzea. Gainera, bere finantzaketa ez da hain estrukturala izango, baina bai proiektuetara lotuagoa. Bere espezializazioa sustatu beharko da.
- Unibertsitateek eta Ikerkuntza zentroek lehiakortasuna hobetzeko duten egitekoa handitzea.

- Pertsona ikertzaileen egitekoa indartzea, ezinbestekoa baita gaitasun handiko pertsonak ezagutza oso baloratua izango den herrialdera erakartzeko.
- Ikerbasquek talentua erakartzeko duen egitekoa indartzea.
- “Berrikuntzaren adreilutik” ihes egitea, hau da, edukinontzian edukian baino gehiago ez inbertitzea.
- Enpresek beren I+G+B egitasmoetan duten egitekoari lidergo handiagoa ematea.
- Euskal errealitatea mundu mailako garapen teknologikoko zentro handietara hurbiltzea, gure enpresa sareari aurrerapen teknologikoak eskuratzen lagunduz.
- Garapen teknologikoko politika aktiboak garatzea: zerga eta finantza alorrekoak, informazio agentziak, sustapen agentziak, ...
- Europar Batasunaren Horizon 2020 egitasmoari ahal dugun erabilgarritasunik handiena ateratzeko gai izatea. 8000 milioi euroekin, ikerkuntza, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko dagoen egitasmo publikorik handiena da. Horretarako, guztiz beharrezko dugu euskal erakundeak Egitasmo honetara zuzendutako proiektuak aurkezteko eta defendatzeko jardunera bideratzea.
- Gure berrikuntza sisteman enpresa txikien parte hartzea sustatzea.
- I+G berrikuntza produktuan edo prozesuan besterik garatzen ez delako ustea baztertzea, berrikuntza hori merkaturatze eta enpresa antolaketan sustatuz.

8. AZPIEGITURA FISIKO ETA TEKNOLOGIKO **AURRERATUEN SAREA**

Aukera ekonomikoak, enpresen jardunak eta garatzeko duten gaitasunak herrialde aurreratu eta modernoak behar dituzte. Une honetan, eta krisiak mugapen handiak inposatzen dizkigun arren, Euskadik modernizatzeko hartu duen bideari jarraitu behar dio, eta bere azpiegituren garapena betetzen eta planifikatzen jarraitu behar du.

Ekonomia berritzaileek kanpoko esparruekin mailarik gorenean lotzeko gaitasuna duten herrialdeak behar dituzte, komunikazio aurreratuak eta garapen teknologiko handia. Hau da, kapital fisiko eta adimenduna sortzea. Euskadi eta euskal enpresak lehiakorak izango dira, informazio, jarduera eta produkzioaren elkar trukerako gune izateko gaitasuna erakusten badu; eta horretarako, azpiegitura fisiko eta teknologikorik aurreratuena izan behar ditu, azpiegitura adimendundunei gero eta egiteko esanguratsuagoa emanez (IKTak, ezagutza), horiek baitira ekonomia garatuen produktibotasun hazkundera gehien laguntzen diotenak.

Erakundeen lana izango da baldintzarik egokienak sortzea, jarduera ekonomikoa testuingururik onenetan garatu dadin, herrialdea inbertsio, ezagupen eta enpresarako erakargarri izan dadin, eta aberastasuna eta oparotasuna sortzeko. Arautzeko duen gaitasun eta ekimenaz gain, Herria garatzea eta modernizatzea da administrazio publikoaren egitekorik nagusiena, inguru oso lehiakorak sortzeko helburuarekin. Xede horietarako ezinbesteko dugu:

- Euskadi kanpoarekin konektatzeko egitasmoa garatzea, jarduera ekonomiko eta nazioarteko konexio mutur nagusiekin dituen harremana eta elkarreragina hobetzeko. Mutur hauek dira europar diagonalak, Europa erdialdeko pentagonoa, Ipar Europako herrialdeak eta gainerako kontinenteetako mundu mailako erreferentzia zentroak.
- Abiadura Handia garatzea, eta portuetako eta aireportuetako jarduerarekin lotzeko plataforma planifikatzea; era berean, pertsonak eta merkantziak garraiatzeko garraio nagusiaren euskarri gisa funtzionatzea, trenbide garraioaren bigarren sarea, autobusak...
- Euskadi barruko mugikortasuna hobetzea, euskal bideak integratzeko sarea hobetzen jarraituz, eta garraio publikoa garatuz.

- Garraio sistema adimendunen, trafikoaren kudeaketa aurreratuaren eta Euskadiko komunikatzeko bideetako informazioa hobetzearen aldeko apustua egitea.
- Gure herrialdean plataforma logistikoak kokatzea.
- Telekomunikazio eta datuak kudeatzeko sistemak zabaltzeko sare aurreratu eta jasangarria garatzea
- Uztai Atlantikoa deritzon Euskadiren erdikoitasuna bultzatzea. Horretarako, komunikazio azpiegiturak ahalbidetu beharko dira, bereziki itsasoko autobide deritzotenak. Errepideetakoak errealitate dira eta trenbide autobideak bidean daude jada.
- Azpiegitura sare ezberdinen kudeaketaren koordinazioa hobetzea.

Horrez gain, ezinbesteko jotzen dugu azpiegitura espezializatuak sortzea, ekonomiaren sektore estrategiko eta motoreen garapena laguntzeko balioko dutenak.

9. ENPLEGURAKO, LEHIAKORTASUNERAKO ETA GIZARTE EREDUAREN JASANGARRITASUN ETA IRAUNKORTASUNERAKO FISKALITATEA

Europa eta nazioarte mailako zerga egituraketa berria ezartzeak, zerga politikak derrigorrez bilatu behar dituen ekitate eta eraginkortasun helburuak indartzeaz gain, Euskadin bi helburu nagusi izan behar ditu, oraingo testuinguru ekonomiko eta finantzazkoan berebiziko garrantzia dutenak: zergen alorreko nahikotasuna eta biziberritze ekonomikoa. Diseinatu beharko dugun zerga sistemak zutabe sendoak izan beharko ditu sarrera eta gastuen arteko oreka bermatzeko eta, era berean, ekonomia biziberritzea, oparotasuna sortzea eta enplegua berreskuratzea ahalbidetuko duen eszenatokia ekarri behar du.

Horiek helburu guztiak zerga sistema orekatuaren bidez lortuko dugula bermatzeko, ezinbestekoa da Euskadiko Herrialde Historikoei **gure zerga sistema osatzen duten** figura guztiak modulatzeko gaitasuna izatea, Kontzertu Ekonomikotik eratortzen den oraingo eskumen markoa gaindituta. Une honetan ezinezko gertatzen da gai batzuen inguruko zerga politika esparruko erabakiak hartzea.

Hori dela eta, beharrezko jotzen dugu lehenengo eta behin Kontzertu Ekonomikoaren erreforma handiari ekitea. Helburu nagusia da gure Herrialde Historikoen eskumenak zabaltzea, gure zerga sistemaren osoko erreformarako planteamendua eragozten duten mugapen horiek ezabatuta. Gainera, EAJ-PNVk uste du zerga esparruko neurriak hartu behar direla, eta indar berezia jarri behar zaiola iruzurraren kontrako borrokari.

Kontzertu Ekonomikoaren erreforma

Kontzertu Ekonomikoaren erreformak beharrezko du beren artikuluetan erreforma batzuk egitea. Eta hau ez da bakarrik Kontzertuaren testua eguneratzeko edo hobekuntza teknikoak egiteko. **Eskumen mugapen batzuk** ezinbestean kendu behar dira, gaur egun Herrialde Historikooi gure zerga sistemaren diseinu eta kudeaketa integrala eragozten dizkigutelako.

Erreforma honek gure **subiranotasun fiskalean** aurrera egiten lagunduko gintuzke, eta guztiz ezinbestekoa da **zerga bilketaren nahikotasuna** lortzeko. Esturarekin eta gastuaren eraginkortasunarekin batera, ezinbesteko baldintza baita aurrekontuen oreka bidera itzultzeko. Bestek beste zabaltzeko beharrezko jotzen ditugun eskumenak hauek dira:

- Zehar zergetan ohiko araudiko tributu hitzartuak gainditzea (BEZ, Aseguru Primen gaineko zerga, Zerga bereziak eta sozietateen eragiketak) eta horrekin batera kapital higikorren atxikipenei, jarduera ekonomiko eta sariei eta behin betiko egoitzarik ez duten ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagozkiena .
- Kontzertuaren artikuluen artean, kontzertatze berriak sartzea, besteak beste, Zerga Berezien eta BEZ-aren alorrean inportazioaren gaineko zergei, Hidrokarburoen gaineko Zerga berriari eta Jokoen gaineko Zerga berriari dagozkienak.
- Zerga alorrean eskumenak dituzten euskal erakundeek ECOFINen lan talde batzuetan eta nazioarte mailako antzeko foroetan parte hartzea.

Gainera, izaera txikiagoko esparru fiskaletan aurrera egitea bilatzen dugu, besteak beste hobekuntza tekniko batzuk (konexio puntu batzuk argitzea, Ondorengotzaren gaineko zergan 5 urteko erresidentzia mantentzeko derrigorra kentzea, eragiketa bolumena 10 milioitara igotzea, BEZ eta Sozietateen gaineko Zergan eragina izan dezan, eta abar) eta Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoan, Koordinazio eta Arauen Ebaluatze Batzordean eta Batzorde Arbitralean doikuntza batzuk egitea; doikuntza hauek ezinbesteko jotzen dira eskumen alorreko hutsune batzuk eta beren ardurapean dituzten funtzioetan disfuntzionalitate batzuk ezabatzeke.

Zerga sistemaren erreforma

Gure eskumen markoan azaldutako erreformen inguruan erdietsiko diren lorpenak gutxietsi gabe, krisi ekonomiko larri honek sarrera publikoak 2006koen mailara eraman dituelarik, eta epe laburrean zerga bidezko sarrerek gora egiteko aukera aurreikusten ez delarik, eta bien bitartean, gastuekin batera, ongizate estatua mantentzeko beharizanak igotzen eta handitzen direlarik, ezinbesteko gertatzen da zerga figura bakoitzak une honetan duen funtzioa aztertzea, bereziki ezarpen zuzenari dagokionez.

Zehatzago esanda, ezinbesteko gertatzen da **Sozietateen gaineko Zerga sakontasunez erreformatzea**; zerga neurri aurreratuenak sartu behar dira enpresa tributazio alorrean, gure ehun produktiboa indartzeko eta lehiakor izatea lortzeko; eta, aldi berean, oparotasuna eta enplegua sortzea eragiteko. Erreforma hau honako oinarri hauetan sostengatu behar da:

- Jarduera ekonomikoen alorrean iruzurraren kontrako neurriak jartzea, tributazioa egiazko gaitasun ekonomikoaren araberakoa izan dadin. Horretarako, gastu batzuen gaineko kenkariak berraztertzea proposatzen da (ibilgailuak, laketontziak, etxebizitza, ordezkaritza gastuak, eta abar) oinarri negatiboko konpentsazio egoerak mugatzea, moduluka aztertzeako sistemak apurka-apurka kentzea, eta informazioa emateko derrigorak zabaltzea.
- Oraingo araudian giltzarri diren elementuak mantentzea, besteak beste ohiko aktibo finko berrietan inbertitzeagatiko kenkariak, enplegura eta ikerkuntza, garapen, berrikuntza, ingurumena babestera zuzendua, eta bere kasuan berraztertzea eta kentzea, hasieratik izan duten helburua betetzen ez duten zergaren erregimen eta kenkariak.
- Neurri berriak hartzea, besteak beste enpresen kapitalizazioa eta nazioartekotzea sustatzeko, kanpoko merkatu berriak bilatzeko eta jabego industrialak garatzeko.
- Helburu zehatza duten zerga berriak ezartzeko aukera baloratzea. Esate baterako, finantza transakzio handietan lortutako diru sarrerak gure osasun sistema indartzeko erabiltzea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, ezinbesteko jotzen da **ekitate, progresibotasun, neutraltasun, gardentasun eta sinplifikatze printzipioak indartzea**; era berean, horien guztien arteko oreka bilatu beharko da. Horregatik, printzipio horiek guztiak indartzeko xedez, berraztertu beharko dira tarifa orokorra eta aurrezkiena, salbuespenen indarraldia, borondatezko aurreikuspen sozialaren tratamendua eta kenkarien erregimena.

Amaitzeko, ezarpen zuzeneko gainerako figurei dagokienez, ondare handien gaineko zerga arautu beharra dago, eta honen osagarri gisa egon behar du dohaintzen gaineko tributazio egokiak (oraingo Ondarearen eta dohaintzen gaineko zergaren araudia indarrean dago 2012 eta 2013 ekitaldietarako).

Iruzur fiskalaren kontrako borroka

Arestian aipatu dugu, gaur egun zerga alorrean egin nahi den erreforma ororen oinarrian egon behar dute zergen nahikotasun helburuak eta biziberritze ekonomikoaren zerbitzura egoteak. Horretarako baldintza ezinbestekoa da iruzur fiskala errotik ezabatzea, eta horretarako zerga sistemak eskuan dituen tresna etengabe ebaluatu behar ditu, neurriak proposatzeko eta jarduerak garatzeko, hiritarren arteko bizikidetzaren printzipiorik oinarritzkoenak urratzen dituen **iruzur praktiketatik aldentzeko; eta, era berean, praktika hauek zigortzeko xedez.**

EAJ-PNVk araubidezko tresna egokia onartzeko lana egingo du, neurri sorta barnean hartuko dituen, besteak beste, oraingo zigor sistema berrikustea, ardura solidario eta subsidiario kasuak zabaltzea eta indartzea, zerga zorra ahal den neurrian ordaintzen dela bermatzeko, eta informazio derrigor berriak ezartzea, aitortuetatik goragoko errenta mailak antzemateko, eta hauek orain arte horietatik salbuetsita egon diren talde zehatzetara zabalduz.

10. SEKTORE PUBLIKO ERAGINKORRA, BIZIBERRITZE EKONOMIKOA ZUZENTZEKO GAI IZANGO DENA

Sektore publiko motorea

EAJ-PNVrentzat, euskal sektore publikoa, funtsezkoa izango da herriaren garapen ekonomikorako. **Liderra izaten jarraitu behar du, sektore ekonomikoaren laguntzaile izatera mugatu barik.** Motore, ekintzaile, berritzaile eta lehiakor izateko gaitasunak etengabe hobetzeko eta modernizatzeko ahalegina exijitzen du, sektore publikoa gizarteak eta erronka berriek eskatzen duten mailara egon dadin.

Sektore publiko ireki eta gardena

Gobernu ireki eta modernoaren alde egin nahi dugu, akordioen eraikuntzan oinarritutako lidergoak ekarriko dituen, eta hiritarrek inparteketa etengabe eta irekia kudeatzea ahalbidetuko duena. Dinamika honek lagunduko digu gizarte osoaren ezagutza behar bezala kudeatzen. Zentzu honetan, **irekierak esan nahi du gardentasun eta parte hartzea.**

Gobernu ona izango da Eusko Jaurlaritzaren jarduerarako gida-lerroa, eta era berean izango da Herri honetako erakunde guztiena, eraginkortasuna, zorrotasun ekonomikoa, gardentasuna eta hiritarren parte hartzea etengabe bilatuz. Krisialditik irtengo bagara, denon ahalegina behar da, eta Gobernuak izan behar du eredia eman beharko duen lehena .

Jarrera honen sustraian egon behar da kudeaketaren jarduketaren arduratsua (hau izango da interes talde guztien zerbitzura egotea eta lehentasunen arabera denbora marko baten barruan jardutea) ekitatea, (desorekak zuzentzeko ekimen jarraituan, larritasunaren arabera tratamendu ezberdina emanez) eta abian jarritako ekimenen iraunkortasunean .

Zentzu honetan, garrantzirik gorenena eman behar zaio “Gobernu Irekirako” egiazko sistema ezartzeari, gizarteak gero eta gehiago eskatzen baitu gardentasunik gorrenena. Hau egin beharko da kudeaketa ekonomikoan eta finantzetan gardentasun mekanismoak jarrita, herri lan eta zerbitzuak kontratatzeke orduan eta giza baliabideak kontratatzeke orduan.

Parte hartzea bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Horrela, behar besteko tresnak sustatuko ditugu, hiritarrek eta eragile instituzional, ekonomiko eta sozialek egitasmo publikoen inguruko iritzia ematerik izan dezaten, eta ondorioz, egitasmo hauen inguruko proposamenak egiterik eta lankidetzaz eskaintzerik izan dezaten. Zehatzago esanda, eragin sozial eta ekonomikoak dituzten estrategia sektorialak eraikitzeko orduan. Zentzu honetan, informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiltzearen aldeko apustua egiten dugu, parte hartzerako tresna gisa erabiltzeko, eta prozesu parte hartzaile horietan garapen eta emaitza gardenak izan daitezten.

Gardentasun eta parte hartze tresna hauek kudeaketa politikoaren esparru guztietara helduko dira. Gobernu irekiaren inguruko araudia hobetzeaz gain, lan egingo dugu kudeatzaile publikoek hiritarrekin hartuta dagoen konpromisoa argi izan dezaten; horretarako, parte hartze prozesuak halakorik derrigorrezko ez denean ere bultzatuko dira, gardentasuna izango da zerbitzuak, egitasmo eta proiektu publikoak ebaluatzeko modua, hiritargoari egitasmo eta zerbitzuen eragin ekonomiko eta soziala ezagutzea ahalbidetzeko. Euskadik Gardentasun Lege propioa izatea bilatuko dugu, esparru honetan gobernatzen gaituzten konpromiso maila goren bera exijituko duena.

Sektore publiko eraginkorra

Gastu publikoaren zorrotasuna arau nagusi izan dugu, eta erabili izan dugu balorea sortzeko eta solidariotasuna egingarri egiteko. Dena dela, gaur egun aurrerako beste urratsa eman beharra dago. Europar herrialde aurreratuenen maila berean egin behar dugu- Ipar Europakoak- eta gure sistema publikoaren antolaketa eraginkorraren bidez. Horrek eraman behar gaitu zorrotasun fiskala solidariotasunean oinarritutako ondasun eta zerbitzuen banaketarekin uztartzera.

Baliabide publikoak urriak dira, eta horretarako ezinbestekoa izango da **zorrotasun ekonomikoaren eta aurrekontuen zorrotasunaren arteko oreka** aurkitzea. Hau dena egin behar da hezkuntza, osasuna eta segurtasuna alorretako politika publikoen bermearekin, gizarte kohesioaren berme gisa eta ekonomia produktiboa ezinbestean biziberritu behar dela kontuan hartuta. Zentzu honetan, EAJ-PNVren Proposamen Ekonomikoak zera aurreikusten du:

- Defizit publikoa kontrolatzeko eta gain-zorpetze publikoa saihesteko helburuekiko konpromisoa.

- Gobernuaren antolaketa egitura eta bere sektore instituzionala erreformatzea, bere egitura birdiseinatuta, bikoiztasunak kenduta eta autogobernuaren lehen legegintzaldietan egin zen moduan, dinamizazio ekonomikoak eta enplegu sorkuntzak suposatzen duen lehentasuna islatuta. Zehatzago esanda, Eusko Jaurlaritzaren sail eta barne erakundea sakontasunez birdiseinatzea.
- Erakunde publiko ezberdinetan politika korporatiboak estandarizatzea.
- Euskal administrazioa teknologikoki modernizatzeko plana, lehiakortasuna eta barne prozesuak hobetzeko, errendimendua eta erabiltzaileei zuzendutako zerbitzua ahalbidetzeko.
- Ohiko gastua txikiagotzea.
- Kontingentzia planak ezartzea, eszenatoki ekonomikoak aldatzen direnerako neurriak aurreikusiko eta kontuan hartuko dituztenak.

Gainera, uste dugu ezinbestekoa dela sektore publikoaren berrikusketa globala egitea, zerbitzu publikoen **jasangarritasuna epe luzera bermatzeko**; zerbitzu horien helburu publikoa eta beren ekitate eta zerbitzu printzipioak mantenduz, enpresa mundutik hurbilago egongo diren kudeatzeko era berriak sartuz, ezinbestean mugatuak izan behar duten baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra ahalbidetuko dutenak.

EAJ-PNVk zuzenduko duen kudeaketapublikoaren funtsezko beste esparrua, pertsonen kudeaketa izango da. **Erakunde publikoak kudeatzeko orduan, parte hartzen duten pertsonen talentua integratzeko eta garatzeko erakunde gisa egin behar da.** Behar den exijentzia mailarekin (oraingo absentismo mailak murriztuta), baina behar besteko pizgarriekin (eta ez soilik ekonomikoak, baizik eta baita ekimenak errespetatzea, konpromisoa aitortzea, berritzeko gaitasuna eta ondo eginiko lanari garrantzia ematea) erakunde eraginkorrak lortzeko eta hiritar-bezeroaren beharrianak asetzeko.

Azkenik, ezinbestekoa da egitismo politika eta proiektuen ebaluazioa gestio publiko ororen baitan edo ADNan sartzeari, etengabe antzemango ditugun behar sozial berrietara egokitu ahal izateko. Gainera, azterketa lan honetatik politikak ikasteko eratortzen den potentziala (policy learning) ikasi behar dugu, ezinbestekoa baita politika publikoen diseinu eta ezarpenean berritzeko.

Enplegu eta enpresei laguntasuna emateko zerbitzuen egitekoa

Sektore publiko eraginkorraren filosofiaren barruan, bi esparru azpimarratu nahi ditugu arlo ekonomikoan eragiten dutenak: enplegu zerbitzuak eta enpresei babesa emateko zerbitzuak. Garrantzitsua da enplegu politika eraginkorretarako eredu propioa garatzea, euskal autogobernuak eskaintzen dizkigun ahalmen guztiak erabilita. Honek esan nahi du euskal ekonomiara egokitutako enplegu politikak garatzea.

Lanbide da gure Enplegu Zerbitzu Publikoaren kantoi-harria, eta beraz, ezinbestekoa da langabezia sufritzen dutenei laguntzea lortzeko eta gure biztanleria aktiboaren enpleagarritasun maila egokia mantentzeko neurrien bidez, egoera hori saihesteko eta prebenitzeko. Dena dela, premiazko jotzen dugu **lanbide birformulatzea**, bilakatu den INEM zaharraren kopia txarra izateari utz diezaion.

Horretarako, hurrengo arlo hauetan lan egitea planteatzen dugu:

- Lanbidek indar handiagoz egon behar du enpresara bideratuta. Lanbidek, Estatuko enplegu zerbitzu publikoek bezala, ia erabat bideratuta dago langabeian dagoen pertsonaren inguruabarretara; ahaztu egiten da enpresa goitik behera ezagututa, bere beharrianak zeintzuk diren jakinda baino ezin izango zaie langabeei behar dutena eskaini, hau da, lanpostua. Lanbidek harreman hurbilean egon behar du enpresekin, eta hauek lankide eraginkortzat hartu beharko dute, ez bakarrik beren giza baliabide arloan dituzten berehalako beharrianak erantzuteko, baizik eta baita beharrian hauek planifikatzeko.
- Lanbidek eredu kideago eta parte hartzaileagoa hartzea. Lanbide “lan merkatua dinamizatzeko lanean, elkarrekin biziki ari diren eragileen sare” baten erdiko elementutzat jo behar da, bera bakarrik enplegu politika eraginkorraren funtzio guztiak egin nahi dituen makro-erakundea izan beharrean. Zentzu honetan, kontzertu eta planifikazio eredu berreskuratzearen alde egin nahi dugu, Euskadiko eskualde bakoitzaren izaera berezitua kontuan hartuko duena.
- Lanbidek bere begirada zabaldu behar du langabezia dauden pertsona guztiak barnean hartzeko, eta bereziki gazteak. Eta, jakina, gaigabetasuna duten pertsonak eta Gizarteratzeko Errentaren onuradunak bazterrean utzi gabe; baina, baliadun zerbitzuak eskainiz, langabezia dauden pertsonak, prestakuntza, aholku eta bitartekaritza konbinaketa eraginkorraren bidez, enplegua epe laburrean lortzerik izan dezaten.

Enpresei babesa emateko zerbitzuei dagokienez, uste dugu hobetzeko aukera ere badagoela koordinazio esparruan, eta bereziki **zerbitzu espezializatuak** eratzeko orduan; besteak beste, finantzaketa lortzeko esparruan, diseinu industrialean, I+G+B esparruaren kudeaketan, ezagutzaren kudeaketan, aliantzak ezartzeko eta garatzeko ekimenean.

Enpresa bultzatzaile eta motoreei, eta hazteko aukerak dituzten enpresei laguntzeaz gain, egitasmo publikoen eta agenda ekonomikoaren barruan, zerbitzu hauek **lehentasunezko arreta berezia** eman beharko diete **Enpresa Txiki eta Ertainei eta langile autonomoei**. Haiek dira gure ehun ekonomikoaren oinarritzko funtsa. Haiek dira kontsumoaren murrizketa lehenengo nabaritzen dutenak. Mailegu murrizketa sufritzen duten lehenak ere badira. Beraiek dira ordaindu gabeko fakturak eta atzerapenak gogorren pairatzen dituztenak. Eta, horrekin guztiarekin batera, haiek dira enpleguen parterik handienari eusten diotenak.

ENPLEGU ETA BIZIBERRITZE EKONOMIKORAKO ABERRI AKORDIOA

Guztiz ezinbestekoa da premiaz eta ekimen osoz, arestian planteatu ditugun horiek hamar lehentasun guztiei ekitea. Pairatzen ari garen krisialdi ekonomikoak borondateak eta gaitasunak batzea exijitzen digu. Lidergo berria geureganatu behar dugu eta **Euskadin Enplegu eta Biziberritze Ekonomikorako Aberri Akordio handia sustatu behar dugu.**

Une honetan, Kontzertazioaren beharra dugu. Denbora luzeegia eman dugu gatazkan. Gatazka politikoa, gatazka ekonomikoa, gizarte gatazka. Aldi luzeagoa benetan, eta ezin dugu gehiago luzatzerik utzi, jokoan baitago euskal hiritar guztien ongizatea, oraingo pertsonena eta hurrengo belaunaldietakoena.

Enplegua gure helburu nagusia izanik, Aberri Akordio honek honako hauek eragin beharko ditu:

- **Eragile instituzional,ekonomiko eta sozial** guztien ahaleginak estrategia partekatu baten oinarrian lerrotatzea, Euskadi lehiakorragoa eta enplegua sortzeko gaitasun handiagoarekin eraiki dezagun.
- Euskal hiritargoak, eta bereziki enpresariak, **konfiantza eta ilusioa** berreskuratzea lortzea, krisitik ateratzea, zaila den arren, egingarria dela uler dezaten.

Hau guztia egin beharko da Eusko Jaurlaritzaren eta bere arduradun gorenaren, hau da, hurrengo Lehendakariaren lidergoaren eskutik.

Akordio honek barnean hartu beharko ditu **epe ertain eta epe luzerako estrategiak,** gure ekonomiaren hazkunde jasangarri, iraunkor eta berdinkidea eman dadin. Berrabiatze ekonomikoaren zerumugak ahalegin etengabea beharko du, baina, aldi berean, talka neurri zehatz eta premiazkoak hartu behar dira, epe, laburrean, gure gizarteko giza talde ahulenek, eta bereziki lanik gabeko pertsonak pairatzen dituzten arazo larriak konpondu ahal izateko.

Agiri honetan aurkeztu diren lehentasun guztiek suposatzen dute **Euskadiren pultsu ekonomikoaren biziberritzea**, ekonomia produktiboaren aldeko apustua, inbertsioa eta berrikuntza. Era berean suposatzen dute gure ahalmen propioen aldeko apustu egitea, hau da, pertsonen gaitasun eta prestakuntza, zerga eredu propioa eta sektore publiko bat lidergo gaitasunarekin. Aldi berean suposatzen dute errealitate ekonomiko globalera eguneratzea eta egokitzea, mundura irekita dagoen ekonomia, gure garapenaren zerbitzura dauden azpiegitura sare moderno batekin.

Aberri Akordio honen oinarrian eskaintzen dugu eragile ekonomiko, sozial eta politikoen aldetik planteatzen daitezkeen **ekimen guztiak barnean hartzeko jarrera irekia**. Berretsi egiten dugu kontzertazioaren alde egiten dugun apustu irmoa, eta ekimen jasangarriak geureganatzen ditugu (inprobisazio eta “ideia zoriontsuen” denborak joan dira, eta ez dira itzuliko). Era berean geureganatzen ditugu gure ekimen propioak, Euskaditik eta Euskadirako pentsatuak. Gure helburu nagusia gizarteak partekatzen du eta Herri honen biziberritzean datza.